



## ARTZINIEGAKO UDALA

### AKTA

**Saioa: Ohiko osoko bilkura**  
**Eguna: 2017ko urriak 26**  
**Ordua: 19:00 – 20:50**  
**Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela**

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta  
Inmaculada Vivanco Retes  
Maria Lorente Burgos  
Joseba Mirena Vivanco Retes  
Alazne Lafragua Ureta  
Arkaitz San Jose Martinez  
Unai Gotxi Kastrexana  
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Jose Luis de Valle Duque, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M<sup>a</sup> Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

#### **1.- 2017ko irailaren 21ean egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.**

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Inmaculada Vivanco Retes: besterik gabe, esan, datan otsailak 9 ipintzen duela, baina pentsatzen dut dagoeneko bidaliko zutenez. Pentsatzen dut aktan aldatuko zuela dagoeneko.

Joseba Elejalde Ribacoba: 32 orrialdean, nire agerraldian "nik esaten dizut, Joseba, oraindik Aiarako foruak mantentzen dituzten lau auzoei dagozkiela", ez Aiarako herriak. Ez dakit hala esan ote nuen, baina herriak esan banuen, foruak dira. 36. orrialdean "ya estipuladas" izango litzateke, eta ez "estipulas", baizik eta "ya estipuladas". Eta 49. orrialdean, azken lerroaldean, Bizkaiko Foru Aldundiaren lekuan Arabako Foru Aldundia.

Bestelako oharrik egin ez denez, 2017ko irailaren 21ean egindako saioko akta bozkatu da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos, EAJ-PNV alderdikoak (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Alazne Lafragua Ureta eta Unai Gotxi Kastrexana, EHBildu alderdikoak (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.



## **2.- Aurrekontu Egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko Kontu-hartzailetzaren ebaluazio-txostenaren berri ematea (6/2017 kreditu gehigarria).**

Ascension Hormazabal Meabe: Irakurri duzue? Ulertu duzue? Aurrekontu-oreka likidazioan uzten da eta orain planteatzen daitekeena finantza aldetiko egonkortasuna da, izan ere, gastu arrunta areagotu egingo da eta hasiera batean ez dago arazorik, jakin dezazuen besterik gabe.

### **“EGONKORTASUNERAKO HELBURUA BETETZEARI BURUZKO KONTU-HARTZAILETZAREN EBALUAZIO-TXOSTENA”<sup>1</sup>**

6/2017 KREDITU GEHIGARRIAREN espedientea onartzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikularekin bat etorriz, igortzen dut hurrengo

#### **TXOSTENA**

**LEHENA.** Aurrekontuak eta Tokiko Erakundeen gastu eta sarreretan eragiten duten gainerako esku-hartzeak eratu, onartu eta gauzatzeko garaian aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko printzipioei jarraituko zaie, koherentea dena Europako araudiarekin, eta Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 3., 4., 11., 12. eta 13. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Herri Administrazioen Aurrekontu Egonkortasun modura ulertuko da egiturazko oreka- edo superabit-egoera. Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.3 eta 11. 4. artikuluetan adierazten dena betetz, Tokiko Erakundeek ezin izango dute egiturazko defizitean erori, beraz zikloko defizit doitu gisa (hau da, ezohiko eta aldi baterako neurriak kenduta) ulertuta. Horrenbestez, aurrekontuari dagokionez oreka- edo superabit-egoera izan beharko dute.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan ezartzen denez, gastu zenbakariaren aldaketak ezin izango du Espainiako ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentzia-tasa gainditu. Gastu zenbakari modura ulertuko dira hauek: erabilera ez-finantzakoak, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren terminoetan definituta, zorraren interesak kanpo utzita; Europar Batasunetik edo beste herri administrazio batzuetatik etorritako helburu jakin baterako funtsen bidez finantzatzeko gastuaren zatia eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak. Gastuaren araua kalkulatzeko erreferentzia-tasa Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratuko du, Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12.3. artikuluen arabera.

Finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete egin beharko da, halakotzat ulertuta defizit eta zor publikoaren mugen barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena.

**BIGARRENA.** Legeria aplikagarria hauek baldintzatuta dago;

— Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 3., 4., 11., 12. eta 13. artikulua.

—Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia,

<sup>1</sup> Azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikularekin bat etorriz, tokiko Kontu-hartzailetzak Aurrekontu Egonkortasunerako helburua betetzeari buruzko txosten bat taxutuko du, modu independentean igorriko dena eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen Testu Bategineko 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentuetara gaineratuko dena.



Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16.2. artikulua.

**HIRUGARRENA.** Aurrekontu Egonkortasunerako abenduaren 12ko 18/2001 Legea Garatzeko Araudia, Tokiko Erakundeetan aplikatzeko, onartzeko azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuko 16. artikuluko 1 atalean in fine eta 2. atalean xedatzen denez, Tokiko Kontu-hartzaileak txostena aurkeztuko du Udalbatzan Tokiko Erakundearen nahiz hartako organismo eta erakunde mendekoen egonkortasun-helburua betetzeari buruz.

Txosten horrek izaera independentea izango du eta Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzeko martxoaren 5eko Legegintzako 2/2004 Errege Dekretuaren 177.2. artikuluan aurreikusten diren dokumentutara gaineratuko da.

Tokiko Kontu-hartzaileak egindako kalkulak eta burututako doikuntzak zehaztu beharko ditu bere txostenean, aurrekontuko gastu- eta sarrera-egoerei buruzko 1etik 9ra arteko kapituluetakoko datuak oinarritzat hartuz, Kontabilitate Nazionaleko terminoetan definituta, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera.

Kontu-hartzaileak erabilera ez finantzarioek Barne Produktu Gordinaren erreferentzia-tasa gainditzen ez dutela egiaztatu beharko du, behin zorraren interesak, administrazioen transferentzia finalistak eta finantzaketa-sistemekin lotuta egindako transferentziak kenduta.

Kontu-hartzaileak defizit eta zor publikoaren muga barruan oraingo eta etorkizuneko gastu-konpromisoak finantzatzeko ahalmena ebaluatu egin beharko du, Europako Araudian eta Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

**LAUGARRENA.** Aurrekontu-oreka gastuen aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak eta sarreraren aurrekontuko 1etik 7ra arteko kapituluak alderatzean lortzen da. Aurrekontu egonkortasunerako helburua egiturazko oreka- edo superabit-egoera batekin identifikatuko da.

**BOSGARRENA.** Finantza iraunkortasuna bete den egiaztatzeko oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri direla egiaztatuko da.

Badira finantza iraunkortasunari so oraingo eta etorkizuneko konpromisotzat hartzeko zenbait gastu.

Aurrekontu -aplikazioa 920.421.0 02	Artxibozainen zerbitzua Aiarako kuadrilla. Aiarako kuadrillaren 2017ko maiatzaren 11ko Udalbatzaren Akordio bidez, aldatu egiten da Kuadrillako Lanpostuen Zerrenda, artxiboko administrari plaza berri bat sortu eta balioetsiz. Horrek ekitaldi honetan eta hurrengoetan gastua areagotzea ekarriko du.	4.536, 44 €
--	--	----------------

Bestalde, egun aurrekontuan ezarritakoarekin alderatuz, gastu handiagoa aurreikusten da aurrekontu-aplikazio honetan:

338.226.0 12	Erdi aroko azoka	3.000, 00
-----------------	------------------	--------------

era berean, finantza-iraunkortasunean eragina izanik ekitaldi honetan eta hurrengoetan, gastu hori errepikatzen bada:

**SEIGARRENA.** Horri dagokionez, lortutako emaitzaren berri eman behar da:

Ondorio modura, Aurrekontu Egonkortasunerako eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoko 32. artikuluekin bat etorritik, Udal honek aukera dauka 2016ko Diru-zaintzako Soberakin Likidoarekin finantzatzeko kreditu gehigarriaren espedienteak onartzeko, izan ere, ez du amortizatzeke dauden mailegurik.



2017ko ekitaldiko aurrekontua likidatzean zehaztuko da gastuaren arauari dagokion helburua egiaz bete den ala ez, partida bakoitza zer-nola gauzatu den ikusita.

Haatik, finantza iraunkortasunaren helburua betetzeari dagokionez, oraingo eta etorkizuneko konpromisoak hartzeko ahalmena defizitari eta zor publikoari dagozkion helburuekin bateragarri diren ikusiz egiaztatu behar dena, kontu-hartzailetza honek espediente honetan aipatzen den gastuak finantza iraunkortasunean eragina izango duela jakinarazten du:

Badira finantza iraunkortasunari so oraingo eta etorkizuneko konpromisotzat hartzeko zenbait gastu.

Aurrekontu -aplikazioa 920.421.0 02	Artxibozainen zerbitzua Aiarako kuadrilla. Aiarako kuadrillaren 2017ko maiatzaren 11ko Udalbatzaren Akordio bidez, aldatu egiten da Kuadrillako Lanpostuen Zerrenda, artxiboko administrari plaza berri bat sortu eta balioetsiz. Horrek ekitaldi honetan eta hurrengoetan gastua areagotzea ekarriko du.	4.536, 44 €
--	--	----------------

Bestalde, egun aurrekontuan ezarritakoarekin alderatuz, gastu handiagoa aurreikusten da aurrekontu-aplikazio honetan:

338.226.0 12	Erdi aroko azoka	3.000, 00
-----------------	------------------	--------------

era berean, finantza-iraunkortasunean eragina izanik ekitaldi honetan eta hurrengoetan, gastu hori errepikatzen bada:

*Egokitzat jotzen da txosten hau Udalbatzari jakinaraztea, inguruabar hori adieraziz”.*

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

### **3.- EHBildu udal taldeak Gasteizko Tratamendu Mekaniko eta Biologikoko (TMB) Plantan hondakinak isurtzeko tasaren aurka aurkeztutako mozioa.**

#### **“EH BILDUREN MOZIOA, GASTEIZKO TMB PLANTAN HONDAKINAK ISURTZEKO TASA AREAGOTZEAREN AURKAKOA.**

EAJ alderdiaren Gasteizko Udal Gobernuak, Alderdi Popularraren babesarekin, Arabako gainerako Erakundeak kontuan hartu gabe, porrot egin duen TMB plantaren ustiapen-kontuei zati handi bat kargatzen die, Arabako gainerako herriei, isurtze-tasa % 20 areagotuz. Hori horrela egiten dute, Araban sortzen den hondakin guztiaren soilik % 28 datorrenean Gasteiztik kanpoko Kuadrilla eta Partzuergoetatik.

EAJ eta PP alderdien asmoa da, modu erabat bidegabekoan, beren kutxetako diru-bilketa areagotu ahal izatea Arabako gainerako lurraldeko arabarren eginahalaren kontura, bere udalerrian neurri fiskal atzeragarriak planteatzen dituztenen bitartean, esate baterako, enpresei mozkin fiskalak emanez Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan hobariak aplikatuz.

Gainera, neurri honekin, EAJ eta PP alderdiek haizea hartzera bidaltzen dute behin betikoz Arabako Hiri Hondakinaren Prebentzio eta Kudeaketarako Planean (2017-2030) barneratzen den Aldundiaren zaborrak kudeatzeko proposamena. Aipatu planean probintzia osorako zaborren



*partzuergo bakarra sortzeko aukera barneratzen zen, Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Arabako Kuadrillak eta Hondakinen Partzuergoak osatua.*

*Kuadrillek eta partzuergoek ere alde zuzenetik ohartarazi zuten neurri horiek alde bakoitzeko eran hartzen baziren, haien iritzirik jaso gabe, beren hondakinak Gasteizera eramateko aukerari muzin egiteko aukera seriozki aztertuko zutela, argi eta garbi orekatuagoak diren eta hondakinen kudeaketan ratio hobekak dituzten beste zenbait alternatiba bilatuz.*

*Gogorazi behar da TBM planta hori 2030. urtera arte kontrata emakidadun batek ustiatutako azpiegitura bat dela, neurri zuzeneko dimentsioa duena eta ekonomikoki nahiz ingurumenaren ikuspegitik mantendu ezina dena, hala hondakinari nola emaitzei dagokienez. Lurralderako zama bat, espekulazioa ezaugarri duen eta, jakina, porrot egin duen kudeaketa-eredu baten ondorio.*

*Horregatik guztiagatik, Artziniegako EH Bildu taldeak hurrengo mozioa aurkezten du, Udalbatzan eztabaidatu eta onar dadin:*

*1.- Artziniegako Udalbatzak salatu egiten du Gasteizko Udal Gobernuak hartutako erabakia, hots, hondakinak isurtzeko tasa % 20 areagotzekoa Arabako Foru Aldundiaren TMB eta pasibotasun plantan, Arabako gainerako Kuadrillek pairatzen duten babesgabetasun-egoeraren aurrean.*

*2.- Artziniegako Udalbatzak dei egiten dio Gasteizko Udal Gobernuari TMB plantan hondakinak isurtzeko tasa % 20 areagotzeko erabakia bertan behera utzi dezan.*

*3.- Artziniegako Udalbatzak dagozkion alegazioak egitea erabaki du, horretarako gaitutako epean, Gasteizko Udal Gobernuak TMB plantan hondakinak isurtzeko tasa % 20 areagotzeko erabakia bertan behera utzi dezan.*

*4.- Artziniegako Udalbatzak Gasteizko Udalbatzara, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailera eta Arabako Batzar Nagusietara igorri du akordio hau."*

Joseba Elejalde Ribacoba: nik puntu honetan egia esatera, kontuan izanik datorren astean Kuadrillan bilkura bat dugula zaborren gaiak arduratzen den teknikariarekin, bada, nik datuak izan arte itxarongo nuke bederen eta hark azalpenak eman zitzaizkidan, baina tira, Bilduk sartu digunez, arazo hau apur bat deszifratzen saiatuko naiz, erraza izan ez arren. Gasteizko hondakinak tratatzeko plantan hiri-hondakinekin lotuta tratatutako tona bakoitzaren egiazko kostua 93,22 eurokoa da, egun aplikatzen den 68,56 euroko tasa baino zenbateko handiagoa argi eta garbi. 2016ko ekitaldian zehar Kuadrilletako hondakinen, Gasteiz salbuetsita, 27.842 tonen tratamenduari dagokion kostuaren (93,29 euroko egiazko kostuan) eta Arabako Kuadrillei hiri-hondakinak isuri eta tratatzearen ondoriozko tasa aplikatzearen ondorioz sortutako sarreraren arteko aldea aintzatetsiz, Gasteizko Udaleko kutxa 688.544,53 euroko defizita sortu da. Gure ustez, defizit hori ezin du Gasteizko Udalak beregain hartu eta ez du hala egin behar, izan ere, Gasteizko auzotarrek ez dituzte zertan ordaindu lurraldearen gainerako eremuetako tasak. Aitzitik, Arabako Foru Aldundia izan behar da zenbateko hori beregain hartu behar duena. Ahaztu egin duzue aipatzea ordenantza fiskal horretan bertan tarifa 68,56 eurotik 51,82 eurora murriztea onartzen dela organikoaren gaikako bilketarako, funtsezkotzat jotzen dena Arabako Kuadrilletan birziklapen iraunkor baterako politika bat bultzatu eta akuilatzeke. Halaber, adierazi duzue Gasteizko Udalak Arabako gainerako udalerrak ustiapen-kostuen zati handi batekin zamatzan dituela, plantan tratatzen diren hondakinen soilik % 28 denean beste Kuadrilla batzuetatik jasoa. Ziurrenik jakingo duzue kostua tratatutako zabor-tonaren baitan sartzen dela. Horrenbestez, Kuadrillek beren tonen arabera egiten dute ordainketa, ez dute bestelako kosturik hartzen beregain. Era berean, ez dut aiantzi nahi EAJ taldeak gai honetan duen iritzia. 2015ean, Alderdi Popularrak Gasteizko Udalean eta Arabako Foru Aldundian gobernatzen ari zela, hondakinak isuri eta tratatzeko tasetan igoera bat eman zen, planta Gardelegitik Jundizera aldatuta. Orduan halako izenburuak irakurtzen genituen "EAJ alderdiak Kuadrilletan zaborren tarifen igoera eten dezala eskatzen dio PP alderdiari". Gorka Urtaranek adierazten zuenez "gauzak egiteko modu hori erabateko abusua da eta Kuadrillek ez dute ordainketa horri aurre egiteko ahalmen ekonomikoa". Bestalde, Aldundiko egungo presidentek, Ramiro Gonzalezek, bi gai eskatzen zizkion Alderdi Popularrari. Alde batetik, tasan gehienez % 10eko igoera izatea urtean, orain zure proposamena % 23,98koa da eta, beste alde batetik, Arabako Kuadrilletan ordaindutako



kostuaren eta tonen egiazko kostuaren artean sortzen ziren aldeak Arabako Foru Aldundiak zuzenean Gasteizko Udalari ekonomikoki konpentsa ziezaiola eskatzen zuen. Hitz egiten ari gara EAJ alderdia oposizioan zegoen garaiaz, orduan Alderdi Popularrak gobernatzen zuen Arabako Foru Aldundiari, karguan Javier de Andres zegoelarik, tasen ordainketan zegoen superabit hori beregain har zezala eskatzen baitzion. Orduan Aldundian gobernatzen zuen Alderdi Popularrak kostu hori beregain hartu zuen eta alde hori ordaintzea adostu zuen Kuadrillei igoera hori ez kargatzeko. Haatik, EAJ alderdia Aldundian sartu zenean partida hori desagertu egin zen, eta Alderdi Popularrari egindako eskakizun guztiak desagertu egin ziren. Eskakizun horiek linbora joan ziren. Alderdi Popularraren iritzia argi dago, gure ustez kostatzen zaigunaren eta ordaintzen denaren artean sortzen den defizita ez du Gasteizko Udalak beregain hartu behar. Aitzitik, Arabako Foru Aldundia izan behar da beharrezkoak diren neurriak abiarazi behar dituen, lagungarriak izango zaizkien Arabako Kuadrilla ezberdinei Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako Planean jasotzen diren konpromiso berriak beregain har ditzaten, eta aztertu egin behar ditu Kuadrilla bakoitzak dituen arazoak eta egoera zehatza, formuletan tasen gainean planteatzen diren ezinbesteko kostuen igoera hein batean beregain hartuz. Halaber, Aldundiari eskatzen diogu bi urteko epean lor dadila lurralde aldetiko oreka bat isurien kostu eta tasekin lotuta. Aurrerago zuen mozioan aipatzen duzue planta zaharkituta dagoela. Nik hemen gai horri buruz zera irakurriko dut: "horri buruz esan edukiontzi horia ongi birziklatzen duten plantek konpentsazio ekonomiko bat dutela, errendimendu-plusa datuak gainbegiratzten dituen Ecoembes erakundearen eskutik, eta Jundizek aitortuta ditu plantaren eraginkortasunagatik. Halaber, etengabe auditoriak egiten dituzten hiru enpresa edo herri administrazio ditu, eta Bildurekin kontraesanean dira. Hilean hiru bider Aldundiko teknikariek lan egiteko moduari buruzko txostenak egiten dituzte, eta guztia ongi dago. Ecoembes erakundeak edukiontzi horiaren auditoria horiek egiten ditu eta aipatu duenez, datu onen PS+ bat ematen die. Era berean, Bilduk aipatu du langileek lan-baldintza tamalgarriak dituztela. Bilduk duela gutxi ikuskapen bat egin ziezaiela eskatu zuen eta Osalane laneko segurtasun- eta higiene-baldintzak ikuskatu zituen eta baldintzak onak zirela ondorioztatu zuen". Honekin guztiarekin esan nahi dudana da, berriro diot, nik datorren astera arte itzarongo nuela ea Kuadrillatik zer esaten diguten, ea hau nola geratuko den ikusteko, baina gezurra dela Gasteizko Udalak kostu handiago batekin zamatu nahi gaituenik; aitzitik, kostu hori orain arte eurek hartu dute beregain azken bi urtetan. Eta bidezkoa dela herritarrak birziklatzera eramaten duen tonako ordaintzea, eta bidezkoa dela Kuadrillok dagokigun zati proportzionala ordaindu behar izatea, betiere, Arabako Foru Aldundiak defizit-zatia ordaintzen badu, aurreko legealdian egin zuen moduan.

Alkatea: itxaron, ondo baderitzozu, guk aipatuko dugu. EAJ alderditik zuzenketa bat aurkeztu da mozio honetarako. Bertan Gasteizko Udalak isurpen-tasa modu progresiboan igo dezala eskatzen da, 2018. urterako onartzen den igoera moderatzeko moduan. Hau da, kutsatzen duenak ordaintzeko printzipioa errespetatzea, tasa hauetan, zerbitzu hauetan, printzipio orokor bat baita, gero eta garestiagoak direnak eta zerbitzuaren kostua estali behar dutenak. Ez dut aipatuko neurritz gaineko dimentsioa ote duen eta ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik mantendu ezina den, beno hori zuek mozioan ematen duzuen argudio bat da, ni ziur naiz badirela hori horrela ez dela esateko argudio teknikoak. Bai, egia da Josebak esaten duena, igoera 68tik 85era dela, baina hori ez da mozioan esaten, non tona organikoko kostua ere onartu egiten baita, 51,82 eurokoa. Eta epe luzera, jakina, joerak hori izan behar duela, hots, errefuxa ahalik eta gutxien izan dadila frakzio organikoak gora egin dezan, eta guztiaren kostua merkeagoa izan dadin. Horri dagokionez, Kuadrillatik organikoaren zerbitzua areagotzearen alde egiten da lan, eta hori Aiarako Kuadrillaren eskaera bat zen, eta kalkula zedila organikoaren tonako bilketaren tasa, eta Pleguan, dakizueenez mortu geratu dena, baina tira, bada egia da datorren astean bilkura bat dugula berriro gai horri heltzeko, sarbideen kontrola txertatzeko ikerketa bat barneratzen zen. Sarbideen kontrola bi edukiontzitan, Gipuzkoako zenbait udalerritan funtzionatzen ari den esperientzia bat, eta errefuxaren edukiontzia eta organikoaren edukiontzia txartelarekin irekitzea suposatzen duena, itxura batean frogatu denez edukiontzi horietan lor baitaiteke efizientzia handiena hondakinen kudeaketari dagokionez. Eta gero datu bat eman nahi dut, tonako kostua Jundizen 85 eurokoa da, errefuxaren tona, eta 51,82 eurokoa frakzio organikoarena, Bizkaian



errefuxarena 92,35 eurokoa da eta frakzio organikoarena 47 eurokoa, baina egia da Bizkaian sukaldean prestatu gabeko landare-errefuxa soilik onartzen dela. Araban, ordea, poltsetan ikusiko duzuen moduan, guk barazkia sar dezakegu eta baita haragia ere, arraina, sukaldean prestatua, hori Araban eta sar daiteke, Gipuzkoan errefuxaren tonako kostua 173 eurokoa da, eta organikoaren kostua 140 eurokoa tonako. Hori da apur bat mozio honi dagokionez aipatu nahi genuena.

Arkaitz San Jose Martinez: ados, nik ere ñabartu dituzuen zenbait gauza ere aipatu nahi nituen eta ez naiz eztabaidan gehiegi sartuko, uste dut ez dela lekua eta ez dela unea, lekua eta une pasa zaizkigu, izan ere, esaten duzuen moduan, ez da inor aurkeztu, ez dakien jendearentzat bilkura bat dugu Kuadrillako hondakin bilketaren kontratazio berria lehiaketara atera eta inor aurkeztu ez delako, egia da klausula zenbait gaineratu zirela frakzio organikoa gehiago biltzearen alde egiteko asmoarekin, izan ere, Josebak esan duen moduan, errefuxak eta frakzio organikoak kostu ezberdina dute, frakzio organikoa erabili egin daitekeelako beste kontu batzuetarako, baina eztabaida hori ere ez da piztu Pleguak atera direnean. Ni Kuadrillako ingurumen batzordean nago eta hori aipatu dudan aldiro zera esan didate "hor daude berriro Bildukoak hondakinekin, zaborrekin, eta atez atekoarekin eta abar". Halako eztabaidarik ez da izan. Mozio honetan ez da inon ere aipatzen planta zaharkituta dagoenik. Neurritz gaineko dimentsioa duela ipintzen du. Eta neurritz gaineko dimentsioa du hondakinak kudeatzeko eredu aldatu egin behar dela uste dugulako, hau da, Gipuzkoan erraustegi-plantak gutxienez neurritz gaineko dimentsioa zuela frogatu den modu berean, hemen ere plantak neurritz gaineko dimentsioa duela uste dugu, izan ere, gure ustez zaharkituta dagoen kudeaketa-eredu bat mantentzean oinarritzen da, hori bai dagoela zaharkituta. Eta amaitzeko, guk ez dugu esaten hondakinak ordaindu behar ez direnik. Berez, eztabaida oso eztabaida sakona da, izan ere, gaur egun, Tokiko Erakundearen finantzaketa-funtsaren bidez laguntzen dira zaborren tasak. Esaten duguna da hemen administrazio baten aldekarreko erabaki bat dagoela, gu guztion partaidetza beharko litzatekeenean, guztion zaborrekin egiten den moduan, halako erabakiak hartzerakoan.

Alkatea: nik bi gauza esan nahi nituen. Batetik, Kuadrillako batzordean ez zara zu Bilduko ordezkari bakarra, badira gehiago, baina atez ateko eztabaida...

Arkaitz San Jose Martinez: ni batzorde horretan nago eta ez didazu zuk esango batzorde horretan zer esan den.

Alkatea: ni ere izan naiz entzule modura. Nik ez dut parte hartzen, ez dut botorik, baina entzule modura nago.

Arkaitz San Jose Martinez: berez, keinu hori, izkirimiri hori bilatu da, nik esan dudanean, hain zuzen, alderdien iritzietatik zaborren gaia atera behar dela esan dudanean, hori baita Gipuzkoan kudeaketa kontu batetik eratorritako arazo politiko bat egotearen arrazoia. Eta beste Autonomia Erkidego batzuetan gertatzen ez den zerbait da, izan ere, kudeaketa-eredua ez dago alderdiaren filosofiarekin lerrokatuta.

Alkatea: baina nik diot Kuadrillan eztabaida ez dela, hain juxtu, atez atekoarekin lotutakoa izan.

Arkaitz San Jose Martinez: eztabaidarik ez baita egon. Eztabaidarik ez baita egon.

Alkatea: batzordearen barruan, Pleguak eratzekoan, hitz egin da, eztabaida egon da, izan ere, edukiontzietako kontrol-sistemen ikerketa sartzen da, alternatiba bat dena eta beste udalerrri batzuetan funtzionatzen ari dena.

Arkaitz San Jose Martinez: ez da eztabaidarik egon. Zera gertatu da "kontratua amaitzen ari zaigu, zer proposa dezakegu? Zer egiten ari dira beste leku batzuetan?" eta hori guztiori teknikariak gidatu du, irizpide hobeaz ala okerragoaz. Ez da nahiko gogoeta egin. Hori da nire iritzia. Eta erantzukizuna ez da teknikariarena, inondik inora, baizik eta...

Alkatea: bada, nik uste dut izan dela aukera, eta egin dela gogoeta. Eta gero beste gauza bat, zenbat suposa dezake Udal honentzat igoera horrek urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzen bada. 8.000 euro inguru, beraz, bazen, 2015ean onartu zen zaborren tasa pixkanaka igotzen joatea 2018an zerbitzuaren kostuaren % 100era irsteko, Tokiko Erakundearen finantzaketa-funtsari zaborraren kostuaren zati bat egozten jarraituz, eta azkenean ez dakit nola geratuko den eztabaida hau, baina tira, 8.000 euro izango dira, hau da, zerbitzuak Artziniegako Udalean



defizitaria izaten jarraituko duela 2018ko ekitaldiari begira. Esteko beste ezer ez badago, bozkatu egingo dugu.

Kontrako botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);

Ez da onartzen, Alkatearen kalitateko botoarekin.

#### **4.- EAJ udal talde politikoak Gasteizko Tratamendu Mekaniko eta Biologikoko (TMB) Plantan hondakinak isurtzeko tasaren inguruan aurkeztutako zuzenketa.**

##### **"EAJ TALDEAREN ZUZENKETA, EHBILDU TALDEAK GASTEIZKO TMB PLANTAN HONDAKINAK ISURTZEKO TASARI BURUZ AZALDUTAKO MOZIOARI**

*Artziniegako Udalean dagoen EAJ udal taldeak, indarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo ZUZENKETA aurkezten du EHBILDU taldeak Gasteizko TMB plantan hondakinak isurtzeko tasari buruz aurkeztutako mozioaren aurrean.*

##### **ZUZENKETA**

1.- Artziniegako Udalbatzak, tasak kasu bakoitzean ematen diren zerbitzuen araberakoak eta haien kostua estaltzeko adinakoak izan behar direla dioen printzipioarekin bat etorritz, bere kezka azaltzen du Gasteizko TMB plantan hondakinak isurtzeko tasa % 20 areagotzearen ondorioz, udal zaborren zerbitzuaren kostua modu nabarian areagotzea ekarriko duena, kontsumo-prezioen igoeratik oso gora.

2.- Artziniegako Udalbatzak Arabako Lurralde Historikoko beste instituzio batzuekin modu leialean kooperatu eta kolaboratzeko premia aitortzen du sortutako hondakinak modu egoki eta iraunkorrean kudeatze aldera. Baina hori prezio publikoen igoera neurritzko batekin eta epe egoki batekin egin behar da, erabiltzaileentzat urte bakarrean tasa horrenbeste igotzea eragin ez dezan.

3.- Artziniegako Udalbatzak Gasteizko Udalarari eskatzen dio TMB plantan hondakinak isurtzeko tasak modu progresiboan igotzea, horien egiazko kostuak estaltzen joateko moduan eta, horrenbestez, Lurraldeko gainerako udalerrietarako 2018. urterako onartzen den igoera modu nabarian moderatzea.

4.- Artziniegako Udalbatzak lurraldeko egituren bidezko kudeaketa baten alde egiten du. Egitura horiekin kudeaketa hobetzeaz gain, sinergiak lortuko dira eta erabiltzaileek kostuetan aurrezte ahalbidetuko da, eta ildo horretatik, Arabako Foru Aldundiak sustatutako Arabako Hiri Hondakinaren Prebentzio eta Kudeaketarako Planaren definizioan eta aplikazioan kolaboratzen jarraitzeko bere asmoa adierazten du."

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue? Orduan, bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:





Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3);  
Ez da onartu.

## **5.-EHBildu udal talde politikoaren mozioa, urriaren 12a “Herri indigenen eta kultura aniztasunaren errespeturako egun” modura aldarrikatzearen aldekoa.**

### **“UDALBATZARA ERAMANDAKO MOZIOA, URRIAREN 12A “HERRI INDIGENEN ETA KULTURA ANIZTASUNAREN ERRESPETURAKO EGUN” MODURA ALDARRIKATZEAREN ALDEKOA”**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Colon Ameriketara iritsi zenean konkista bati ekin zitzaion eta, haren ondorioz, kontinenteko ehunka milioi indigena hil ziren 150 urte baino gutxiagoan. Epealdi hartan Amerikako kontinenteko aberastasunak arpilatu egin zituzten bortizki. Karibeko uharte gehienetan aborigenak sarraskitu egin zituzten erabat eta Europako konkistatzaile gutxiengo batek hartu zuen haien lekua.

Espainiako Estatuan urriaren 7ko 18/1987 Legearen bidez urriaren 12a "Espainiako Jai Nazional" modura izendatu zen ofizialki, egun horretan oroitzen delarik "Amerikako Deskubrimendua". Gaur egun "Hispanitate Eguna" modura izendatzen dena historikoki "Espainiako arrazaren jai" edo "Arrazaren Eguna" modura izendatu zen. Izendapen hori aski erabili izan zen hainbat urtez baita Latinoamerikako herrialdeetan ere.

Haatik, azken hamarkadetan asko dira oroitzapen-dataren zentzua eraldatu duten herrialdeak, bere izendapen ofiziala ere egokituz. Esate baterako, Argentinan "Kultura Aniztasunaren Errespeturako Eguna" oroitzen da, Bolivian "Deskolonizazioaren Eguna", Costa Rican "Kulturen Eguna", Dominikar Errepublikan "Nortasunaren eta kultur aniztasunaren Eguna", Perun "Jatorrizko Herrialdeen eta Kulturarteko Elkarrizketaren Eguna", eta hala Nikaraguan nola Venezuelan "Erresistentzia Indigenaren Eguna".

Ildo beretik, eta kontuan izanik Artziniegako udalerrian kultura ezberdinetako pertsonak gaudela elkarrekin bizitzen, horien artean asko genozidio kolonizatzailea jasan zuten herrialde hartakoen ondorengoak. Hori dela eta, kultura aniztasunarekiko errespetuz, ezinbestekotzat ikusten dugu haien memoria historikoa berreskuratzen laguntzea. Horretarako, Artziniegako EH Bildu udal taldeak MOZIO hau aurkeztu du, Osokoan eztabaidatu eta onar dadin:

- Artziniegako Udalak kolonizatzaileek "Amerikako deskubrimendu" izenekoaren testuinguruan burututako genozidioa eta arpilatzea salatzen du, eta Europako konkistatzaileen eskutik odol eta suz kolonizatutako Amerikako herrialde indigenetako memoria eta kultura aitortu, konpondu eta berreskuratzeko bere konpromisoa agertzen du.

- Artziniegako Udalak urriaren 12a “Herri indigenen eta Kultura Aniztasunaren errespeturako egun” modura aldarrikatzen du.

Inmaculada Vivanco Retes irten egin da 19:25etan.

Alkatea: Ezer esateko? Bozka dezagun orduan.

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Iñigo Gomez Unzueta eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (2);

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);



Onartuta geratu da.

Inmaculada Vivanco Retes itzuli da 19:30etan.

## **6.- EHBildu udal talde politikoaren mozioa, Cuixart eta Sanchez arrazoi politikoak direla medio atxilotu eta espetxeratu izana salatuz.**

Arkaitz San Jose Martinez: beno uste dut hemen inor ez garela arrotz Katalunian egunotan herritar askok duten independentziarako nahiarekin eta prozesu horren aurrean Estatu ematen ari den erantzunarekin gertatzen ari diren mugimenduen aurrean. Eusko Legebiltzarrak Jordi Cuixart eta Jordi Sanchez espetxeratzearekin lotuta onartutako mozioa aipatzen dugu. Irakurri egingo dut.

*“Artziniegako Udalak alarma eta erabateko ukoa agertzen du Entzutegi Nazionalak Omniu Cultural eta Kataluniako Asanblada Nazionalaren presidenteak diren Jordi Cuixart eta Jordi Sanchezen aurka emandako baldintzarik gabeko espetxeratze-aginduaren aurka, oinarrizko printzipio demokratikoak larriki urratzea dakarrelako.*

*Artziniegako Udalak Cuixart eta Sanchez arrazoi politikoak direla medio atxilotu eta espetxeratu izana salatzen du.*

*Artziniegako Udalak Cuixart eta Sanchezen aldeko babesa eta elkartasuna agertzen du, eta baita Kataluniako gizarte osoaren aldekoa ere, eta biak berehala aske uzteko eskatzen du.*

*Artziniegako Udalak dei egiten dio Espainiako Estatuari askatasun oinarrizko eta funtsezkoak zanpatzeko bere estrategia utz dezan, demokraziaren oinarrizko printzipioen aurkakoa baita.*

*Artziniegako Udalak errepikatzen du Katalunia, Euskal Herria eta munduko herrialde guztiek, beren etorkizuna erabakitzeko legimititate demokratikoa dutela, muga herritarrek modu demokratikoan adierazi eta erabakitzen dutena izan behar delarik.”*

Inmaculada Vivanco Retes: nik ez daukat mozio hori. Niri Eusko Legebiltzarraren dokumentu bat helarazi didate.

Joseba Vivanco Retes: Bai, baina tira, Eusko Legebiltzarraren ordezkari Artziniegako Udala ipintzea besterik ez da.

Inmaculada Vivanco Retes: Eusko Alderdi Jeltzaleak eta EH Bildu taldeek daude sinatuta. Hori nuenez, agian beste dokumentazio ezberdin bat izango nuela pentsatu dut.

Alkatea: Zerbait esan nahi duzue?

Joseba Elejalde Ribacoba: jaun-andreok, legearen aplikazioa ez da soilik Kataluniari dagokion zerbait, baizik eta herrialde honetako nahiz beste herrialde batzuetako erakunde demokratiko guztiei dagokiena. Legea urratzen duena atxilotu egiten da. Zoritxarrez, legimitatez hautatutako arduradunek legea urratu izanagatik asko izan dira egindako atxilotetak eta guztiok txalotu ditugu atxiloteta horiek. Zuei ongi iruditzen zaizue legea aplikatzea prebarikazioa, boterearen abusua, borondateen erosketa, kalifikazio lotsagabeak edota ustelkeria gauzatu dituztenei, baina Katalunian legea betetzeko ahalegina egiten denean, badirudi zuek ukatu egin behar duzuela ezinbestean eta asaldatu egiten zarete. Legeak ez dira jendeari arrotz zaion botere baten inposaketa arbitrarioa, ezta urrik ere. Legeak tresna bat dira, gure buruari emandakoa elkarrekin askatasunean bizitzeko eta gure desadostasunak modu baketsu eta bidezkoan kudeatzeko. Horregatik, inork ezin du haien gainetik egotea xede izan, eta horregatik botere publiko baten aldetik legea ez betetzea demokraziaren kontrakoa da zeharo, inposaketa bat da, bidegabekeria bat, jendearen eskubideen aurkako ekintza bat da, eta elkarbizitzaren erroari egindako eraso. Disidentea babesten duten arau juridikoak mespretxatzen dituen desobedientzia ekintza totalitario bat da. Erreferendum hori joan den irailaren 6an onartu zen Kataluniako Parlamentuan, lege funtsezkoenak urratuz. ANC eta Omniu Cultural mugimenduko presidenteak, Jordi



Sanchez eta Jordi Cuixart, ez dira preso politikoak, herritarren elkarteetako presidente diren herritar dira, legea urratu dutenak. Entzutegiko Epaileak autoan esaten duenez, Legea aplikatzea ekiditeko asmoz erresistentzia deitu zuten protestetan sustatzaile eta gidari nagusiak izan ziren. Inputatu egin dituzte Sedizio-delitu bat egiteagatik, agintaritzaren, ordena publikoaren, aurkako aztoramendu kolektiboko delitu bat egiteagatik, ezarritako ordearen aurkako matxinada batengatik. Ohituta gaude legeak urratzera eta gustatzen ez zaizkigunak ez aplikatzera. Hemen oraindik legeren bat urratu egiten da. 39 zenbakia zehazki, 1931ko urriaren 28koa, banderen legearena, guztiok jakin dezagun. Banderen legeak Osoko Bilkura honetan ere egon behar zuen, baina zoritxarrez ez dago, eta ez zaio itxaroten. Ez-betetze horren eta egungo Gobernuko taldearen, aurrekoaren eta Bilduren burugogorkeriaren eta setaren ondorioz, Artziniegako Udalak Estatuko abokatutzatik ezarritako auziak direla medio, Ekain aholkularitza juridikoari 1.829,52 euro ordaindu zizkion 2015eko apirilaren 24an eta beste 1.328,23 euro 2016ko ekainaren 30eko apelazio-errekurtsoan. Politikarik herritarrek demokratikoki hautatuko ordezkariak gara. Baina horrek ez digu legea urratzeko, ez betetzeko, edo haren betetzea isunaren edo desgaitzaren mamua bulegoetan barna ibili arte atzeratzeko eskubiderik ematen. Nork hartuko ditu beregain auzi honen ondorioz sortutako gastuak? Nork ordainduko ditu 5.000 euro horiek? Gobernuko taldeak eta Bilduk? Ez, hori beti bezala herritarrek hartuko dute beregain. Udalerrri honetako 1.840 biztanleek ordainduko dugu. Zergatik? Legeak urratzeagatik. Eta bi gizon horiek legeak urratu dituzte eta gaur egun espetxean daude, eta horrela da, legeak urratzen dituen espetxera doa, eta ez dago gehiago hitz egin beharrik.

Arkaitz San Jose Martinez: ez da nire asmoa hemen eztabaida amaiezin bat egitea, baina argi dago legeetan badirela zenbait kode gure bizitzako eremuak arautzen dituztenak gutxi gorabehera. Badira ulerkorrak eta bidezkoak direnak oso eta ezinbestekoak, eta badira bidegabekoak direnak oso. Eta legeak beti bete egin behar dira, ala ez. Izan ere, zenbaitetan ez dira bidezkoak eta, noski, ondorio batzuk izan ditzakete. Baina badira hain justu betetzen ez direlako aldatu egin diren zenbait lege, izan ere, nik ez dut soldadutza egin jende jakin batek erabaki zuelako lege hori ez zela bidezkoa, beste askoren artean. Eta legeak betetzeko daude, baina aldatzeko ere badaude. Eta errealitatearekin bat ez badatoz, gertatzen ari dena interpretatzeko balio ez duten legeak dira. Ildo horretatik, Herrialdean gizarte mailan nahiz nortasunetan izan diren aldaketak ulertzen ez dituen Konstituzio batekin daramatzagu hainbat urte, beno hastapenetik ez zituen ulertzen, baina tira. Epaileari dagokionez, hark ere bere interpretazioa egiten du, gure ustez ez da zuzena, ez dugu aiantzi behar tabernako borroka batean terrorismo-delitua ikusten duen epaile bat dela. Horrenbestez, epaile horren irizpidea berrikusteko modukoa izan beharko litzateke, gutxienez. Eta aurkezten dugun mozioari dagokionez, bi pertsona horien ingurukoa da eskusiboki, erabat justifikatu gabea iruditzen baitzaigu baldintzarik gabeko espetxeratzea, kolaboratzeko eta deklaratzeko inongo arazorik izan ez dutelarik deitu zaienean, eta abar. Epaiaketa oraindik ez da egin, eta gertaerak ez daude frogatuta, izan ere, desobedientzia zibila egotzen zaie, zeinetan ez baitute zertan inolako erantzukizunik izan.

Alkatea: nik ñabardura bat besterik gabe, auziak desadostasuna dagoenean ipintzen dira. Auzia aurkezten da eta Epaileak erabaki egiten du. Hots, auziak interpretazio-irizpide ezberdinak daudenean ipintzen dira.

Joseba Elejalde Ribacoba: kontua da interpretaziokoa ez den lege bat dagoela, Iñigo, beraz ez gaitezen saltsa nahasten hasi. Oso argi dago ordea, zuk lege bat urratzen duzunean, nik semaforo bat gorrian pasatzen badut eta poliziak harrapatzen banau, isuna izango dut. Baina harrapatzen ez banau ez da deus gertatzen. Hemen bandera bat izan dugu hainbat urtetan eta hemen, Udalbatza honetan, sekula ez da ezer esan. Udalbatza honetan onartu zen hura jartzea, eta legez kontrakoa zen, bada tira, Udalbatzan onartu zen eta urte askoan egon zen jarrita. Haizete batek eraman zuen, ziklogenesi leherkor batek, eta Bilduk Osoko Bilkura batean hala gogorarazi zuen eta berriro jarri zen. Zuri, udalerrri honetako Alkate modura, Estatuko abokaturen baten gutuntxoa iritsi zitzaizun arte esanez ez zela legezkoa hori balkoian izatea, ez duzu kendu. Gutuntxoa iritsi zitzaizun unean jaso egin behar da. Zuei Espainiako banderaren eta Ikurrinaren kontuarekin gutuna iritsi zitzaizuen arte, lotsagarria izan zen, Ikurrina teiltuaren alde batean eta Espainiakoa beste batean ipinita izan genituen, lotsagarria zen gorantz begiratzea, zera esanez



"baina non jartzen ditugu banderak, non jartzen ditugu euskaldunak ordezkatzeko gaituzten sinboloak, teiltatu baten gainean!" hori lotsagarria da. Eta kalean aurkitzen duzun edonori galdetzen bazen hori lotsagarria dela esango lizuke, banderak izan genituen lekuan edukitzea, ebazpenei edo arautzeko legeari jaramonik ez egiteagatik. Beste ebazpen bat bidali ziguten atzera, auzitara jo genuen berriro... eta azkenean, banderak ipini eta Ekaini ordaindu, eta etorriko dena. Eta halaxe da, ezin dugu legea urratu. Legea betetzeko dago, ez zuk eta ez nik, ezin dugu Legea urratu, ezta udalerrri honetako beste edozein biztanlek ere. Nik bihar semaforo bat gorrian pasatzen badut, Guardia Zibilak edo Ertzaintzak harrapatzen banaute, nagoen lekuaren arabera, bada isuna ipiniko didate. Haatik, bandera bat badaukat eta inork ikusten ez badu, bandera hori egon liteke 100 urtez, baina ikusten badute eta gauza bat esaten badizute, berehala kendu zenuen gero. Eta gero bada beste kontu bat.

Alkatea: Joseba, berriro diot, auzia desadostasunak daudenean ipintzen da, eta banderen kokapenari dagokionez ziur naiz orotariko iritzia daudela, baina eztabaida hori utzi egingo dugu eta ez dugu horretaz gehiago hitz egingo, e?

Joseba Elejalde Ribacoba: begira Iñigo, izan ere, iristen da une bat non... kontua ez baita alde batera uztea, koherentzia kontua da eta esatea Udal honek lau mila euro eta zertxobait gehiago ordaindu behar izan dituela, izan ere, diru hori ordaindu behar izan dugu, eta legea bete izan bagenu 4.000 euro horiek arkitektura-oztopoak kentzen inberti zitezkeen orain. Zergatik? Herritar horrek ordaindu behar duelako, zuk edo nik? zuk legea urratzea erabaki duzulako. Nik bihar semaforo bat gorrian pasatzen badut isuna ipiniko didate eta esango didazu "ez, interpretazio kontua baita", jakina, horian bazegoen, horian, horian, horian, edo oso gorri ote zegoen. Kamerarik ez badago eta poliziaren esana edo Ertzaintzaren esana nire esanaren aurka bada, bada tira, agian auzitara jo dezaket, haren esana nirearen aurka delako, baina hemen kasu hori ematen da, hots, hemen banderen legea hainbat urtez urratu dela.

Inmaculada Vivanco Retes: Sanchez eta Cuixart jaunen baldintzarik gabeko espetxeratzearen gaia ari gara jorratzen, ez Artziniegako Udaleko ikurrinaren gaia, adarretan barna nahastu baikara.

Joseba Elejalde Ribacoba: esaten ari naizena da ez betetzearekin zerikusia duen kontu bat dela eta bi jaun horiek ez dutela legea bete hemen bete ez den moduan. Esaten ari naizena da hemen legea ez dela bete, bi horiek bete ez duten moduan. Eta azkenik hemen isuna ipini digute eta bi jaun horiek espetxeratu egin dituzte.

Inmaculada Vivanco Retes: berriro diotsut hori beste eztabaida bat dela.

Alkatea: Joseba, esan.

Joseba Vivanco Retes: ñabardura bat soilik Joseba, zurekin bat nator kontu batekin, hots, Ikurrina ez zela egon behar hor teiltuan erdi ezkutuan, baizik eta Udaletxearen balkoi jarraituan, horretan bat nator zurekin. Eta bi, Osoko Bilkura amaitzen denean, edo bihar bertan, Gobernuko Delegatuari deitu eta Udala salatzen gonbidatzen zaitut errefuxiatuei buruzko banderagatik, eraso sexisten aurkakoarengatik, eta beste gai horrekin...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ez dut inora deituko, Joseba. Ez daukat deitu beharrik.

Joseba Vivanco Retes: bandera horiek legez kontrakoak dira, beraz, bihar deitu eta salatu Udala, bandera horiek ere legez kontrakoak baitira. Eta gero jendeari kontatu Udalak ezin duela bere balkoi jarraituan azaldu errefuxiatuen alde dagoela, LGTB + mugimenduaren alde dagoela edo sexu-arazoaren aurka dagoela. Izan ere, bandera horiek legez kontrakoak dira, ez soilik jarrita zegoen Ikurrina, edo presoena. Horiek ere legez kontrakoak dira.

Joseba Elejalde Ribacoba: Ikurrina izatea ez dut uste legez kontrakoa denik, momentuz. Presoenari buruz esaten ari natzaizu ni naizela ezer esan ez duen lehen pertsona, eta bandera berriro ipini da eta jarrita egon da ez dakit zenbat urtez, ahalik eta pertsona batek, eta ez naiz ni izan, pertsona batek Alkateari deitu zion arte, ez da kendu.

Alkatea: inork ez zuen deitu. Gobernuko Delegazioaren eskakizun bat iritsi zen. Kontsulta egin nuen eta nik uste nuen hori egon zitekeela, eta badira ezetz dioten epaiak.

Joseba Elejalde Ribacoba: kukua entzuten da eta...

Joseba Vivanco Retes: gonbidatu egiten zaitut, horiek ere legez kontrakoak baitira.

Alkatea: ortzadarraren bandera, ekartzeko izan nuen lanarekin? Bozkatu egingo dugu.



Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

### **2017ko hirugarren hiruhilekoko egikaritze-aurrekontuaren berri ematea.**

Joseba Vivanco Retes: soberakinaren gaiari buruzko gogoeta labur bat. Oraintxe bertan, urtea amaitzeko ia bi hilabete falta direnean, soberakin bat daukagu, hau da, Udal honen aurrezpen bat, seihun mila eta piku eurokoa, kartillan. Gure taldetik, eta uste dut beste noizbait ere esan dugula, Gobernuko taldeari gogoeta bat, gonbidapen bat, luzatu nahi diogu, hots, ziurrenera aurrezteko ongi dago, baina uste dugu aurrezpen hori ez dela neurritz gainera izan behar. Hots, Artziniegak behar adina premia ditu, eta ez gara obra berriak burutzeari buruz hitz egiten ari, baizik eta aurretik duguna mantentzeaz, eta aurretiaz ditugun gauza askotan, urteen joanarekin narriatze bat nabaritzen da eta ikusten da, hau da, badira hainbat toki, eta ez dugu lekuez, barrutiez, hitz egingo, urteen poderioz argi eta garbi hondatu egin direnak, garbiketa bat behar dutenak, hobekuntzak behar dituztenak, eta kontuan izanik, eta ikusirik kartillan 600.000 euro ditugula gordeta.. Ongi dago koltxoi bat izatea, baina uste dugu Udal modura askoz ere eskuzabalagoak izan gaitzkeela diru hori Artziniegak behar dituen gauzetan ere xahutzeko. Luzatzen dugun gogoeta bat da, noizbait esan duguna, Gobernuko talde honekin ohitu egin gara, beste administrazio batzuetatik diru-laguntzak iristearen baitan xahutzera ohitu dena, eta badirudi diru-laguntzarik ez badugu ez dugula egiten. Diru-laguntza badaukagu bai, gure kabuz gauzei ekiteko dirua era badugunean. Diru-laguntzak iristen direla? Aprobetxatu egiten ditugula? Bikain. Baina badago baita, eta ziurrenik Gobernuko taldeak berak bere gauzak izango ditu buruan, eta Alkatetzan zerrenda handi bat izango da, non inbertitu egin behar den eta gauzak eta konponketak egin behar diren. Hor badugu nahikoa diru, eta gure aldetik bederen uste dugu eskuzabalago joka daitezkeela xahutzerakoan horrenbeste aurreztu gabe.

Alkatea: bai, ona da soberakin bat izatea. Ustekabeei aurre egiteko.

Joseba Vivanco Retes: ez dizut esaten kontua hutsik utzi behar denik.

Alkatea: diru-laguntzak batez ere inbertsio handietarako bilatzen ditugu, eginahal handia eskatuko duten haietan, eta hor aurkezteko proiektuak hautatu behar ditugu. Gauza txikiak, bada badira gauza txiki asko egiteko, hori egia da. Ahal den neurrian, pixkanaka, gauzak egiten ari gara. Gaitasuna ez soilik ekonomikoa, baita Udalak berak obrak egiten joateko duen gaitasuna. Baina egia da soberakin bat dugula.

Joseba Vivanco Retes: izan ere, jendeari esaten bazaio, zera esan diezadakete "kontua da ez didatela konpontzen hura, ez dutelako konpontzen ez dakit zenbatetan". Eta esaten diozu "ez, baina 600.000 euro daude kartillan", eta esaten dizu "Zertan ari dira zerbait sortzen, zerbaiten zain al daude?" Jakina, koltxoi bat egon behar da, eta ziurrenera kontuez arduratzen direnek esango dute "aizu, bada begira, izan 200.000 edo 100.000 euroko koltxoi bat, beste ziklogenesi bat datorrenerako edo gertatzen dena gertatzen denerako" Bikain. Baina jakin, hortik halako aurrezpen bat izatera, inurrien moduan metatzen ari garela dirudi eta.

Arkaitz San Jose Martinez: aurreko Osoko Bilkuran esan genuen, diru-laguntzak interpretatzeko moduak daude, nik interesgarri iruditzen zaidan hura egiten dut eta dagoeneko abiatu dudan arren diru-laguntza bat eskatzen dut, baina ateratzen ez bada egiten jarraitzen dut egiturazko kontua iruditzen zaidalako, eta bestea da hemen egiten dena, ea diru-laguntza ateratzen den eta orduan pentsatuko dugu zer egin. Eta ondoren ohar modura, duen dirua baino gehiago xahutzen duena bezain kudeatzaile txarra da xahutu behar litzatekeen guztia xahutzen ez duena. Izan ere, esku-jartze batzuk egiteko aurrekontu bat egiten baduzu eta azkenean dirua



soberan baduzu, partidak gauzatzen ari ez zarela da hori. Eta partidak gauzatzen ari ez bazara da urte batean ez delako egin berdintasun arloko zerbaite, beste urte batean aurreikusten zen obra bat egin ez delako, hots, zera esan nahi dut, kontua ez da motz geratzea, baina tira zuk aurrekontu bat egiten baduzu hori xahutu behar dela aurreikusi duzulako izango da. Azkenean urtero zerbaite badaukazu soberan eta soberakin bat pilatzen bazoaz, horrek esanahi du ez duzula egin...

Alkatea: nire ustez ekitaldia aurrekontu-emaizta positibo batekin amaitzea ez da txarra, urtero. Arkaitz San Jose Martinez: baina ez da legean ezartzen dena.

Alkatea: ez, baina ez da txarra.

Arkaitz San Jose Martinez: legeak esaten du horrenbesteko diru-sarrera, horrenbesteko gastua, eta urtea amaitzean ados.

Alkatea: ez, baina ez da txarra.

Arkaitz San Jose Martinez: modu batean pasatzen dena bezain kudeatzaile txarra da beste modu batean pasatzen dena.

Alkatea: eta ondoren, diru-laguntzei dagokienez, kasuistika guztiak ditugu. Lehenik eta behin, baditugu hainbat proiektu ez datozela bat dauden diru-laguntzen programekin. Eta baditugu beste batzuk bat datozenak. Horrez gain, badira bat etor daitezkeen proiektuak baina apaindu egin behar direnak diru-laguntzekin bat etor daitezkeen. Eta ondoren badira ateratzen diren hainbat diru-laguntza eta esaten duzu, bada agian hau bat etor liteke honekin, eta orduan aurkezten duzu. Kasuistikak hiru dira, eta paradigma Foru Planean daukagu ia garrantzitsuenak baitira, guretzat lehenestekoak direnak hautatu ezin ditugula, izan ere, Foru Planean ez dira jasotzen Artziniegako Udalarentzat lehenestekoak izan daitezkeen inbertsio horiek, ez dira hartako lehentasunetan sartzen, orduan programarekin bat datozen beste zenbait aurkeztu behar dituzu.

Arkaitz San Jose Martinez: Baina zein dira axola dutenak, Foru Planeko lehentasunak ala Artziniegako lehentasunak?

Alkatea: gauza dagoen moduan, Foru Planeko lehentasunak gailentzen dira. Hots, zuk zure lehentasunak aurkezten dituzu, baina Foru Planarekin bat ez badatoz, ez dizute finantzatzen.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina tira, horretarako daukazu soberakina.

Alkatea: hala da, eta finantzazio-kontu oso garrantzitsua da Araban. Foru Plana, Gipuzkoan eta Bizkaian ez dagoena. Eta hori adibide bat da. Orduan, diru-laguntzen programekin hori gertatzen da. Zenbaitetan lehenesteko proiektu bat duzu, diru-laguntza bakar batekin bat ez datorrena. Ahal baduzu, zerorren aurrekontuarekin egiten duzu, eta inbertsio adierazgarria bada alboratu egin behar duzu. Beste zenbaitetan bat etor daitezkeen proiektu bat daukazu baina egokitu egin behar duzu eta aldatu egin behar duzu diru-laguntzen programarekin bat etor dadin, eta gero beste batzuetan diru-laguntzak ateratzen dira eta esten duzu "bada, hemen aukera bat izan dezakegu", eta sartu egiten duzu.

Joseba Vivanco Retes: Baina azken batean horretara goaz, ongi dago, zuk diozun moduan egoera ona izatea, ongi dago, esan dugun moduan, koltxoi bat egotea, baina ezin dugu Osaba Gilito bezala jokatu. Izan ere, azken batean, zenbat obra egin ditugu Artziniegan diru-laguntzarik izan ez dutenak? Zenbatetan sartu gara diru-laguntza egon arte itxaron gabe? Eta ez naiz ari esaten 200.000 eurotan sartzea, 20.000, 30.000, 40.000 eurokoak izan daitezkeen obrez ari naiz hitz egiten eta zuk esatea "600.000 euro daude kartillan". Zergatik ezin dugu guregan hartu obra bat eta egin? Horretara noa, badirela egiteko zenbait gauza egin daitezkeenak. Gero gainera, gero soberakina erabiltzen ari gara, gogoan dut aurreko legealdian, esaten zitzaigun lehen gauza zela, ez soberakina obrarako da. Aurreko legealdian hasieran soberakin bat genuen eta iritsi zen bestea eta iritsi zen hura, eta ez dakit, 800.000 euroko soberakina genuen, izugarria, dirutza, eta ez, ez da ukitzen, obretarako ukitzen da. Obretarako ez, edozertarako hartzen da. Edozertarako tiradera da, sariak emateko zein beste edozertarako hartzen da.

Ascension Hormazabal Meabe: edozertarako hartzen da, baina ezin duzuna egin da gastu arrunta areagotu.

Joseba Elejalde Ribacoba: begira, Joseba, nik ulertzen dizuet esaten ari zaretena, are gehiago, uste dut hemen, mahai honetan, gauden guztiok ideia bera dugula, beste gauza bat da aurrekontu-egonkortasuna eta gastuaren sabaia. Baina tira, nik ulertzen dut, eta niri gertatu zait, nik 10 urte eman ditut borrokan Erreta Tuterako bide batengatik, 32.000 euroko kostua zuena. 10



urte. Ur deposituari zerbitzua emateko bide bat zen, eta gauza horiek 32.000 eurotan diruzaintzan 600.000 edo 800.000 euroko soberakina egonik bere garaian, Udalarentzat ez zen burua nahasteko moduko gastu bat. Eta horiek, Arkaitzek aipatzen zituen gauza txikiak, egin beharrekoak dira. 1.500 edo 2.000 euroko obra txikiak, egiten joan daitezkeenak, baina egiten ez direnak. Herriaren sarreran espaloi liluragarria dugu inondik ere betetzen ez duena, 40 zentimetro edo 30 izan ditzakeen koska batekin, ez dakit arrapala bat egin daitekeen, arkitektura-oztopo hori kentzeko. Ez dakit, gauza asko daude egiteko, egiten ez diren gauza txikiak. Egunerokoak. Urtearen hastapenean zerrenda bat egiten hasiz gero, 100 baino gehiago aterako lirateke ziurrenera. Eta ikusiko litzateke aurrekontuarekin edo diruzaintzako soberakinarekin zein letorkeen bat. Nire ustez, azken batean, sarritan, egunerokotasunak jan egiten baikaitu, ez gara xehetasun txiki horietan pentsatzen jartzen, finean horren korapilatsuak eta arazotsuak izan daitezkeenak, koska hori izan daitekeen moduan. Hor arrapala bat egin behar zen aspaldidanik eta ez dago halakorik.

Alkatea: badakit egiteke gauza asko ditugula baina ez da egia ezer egiten ari ez garenik.

Joseba Vivanco Retes: ez dugu hori esan.

Alkatea: obra txikiak egiten dira. Berriro diot, badugu egiteko gaitasuna, eta Udalak funtzionamendurako eta kudeaketarako duen gaitasunaren arabera ere ahal den neurrian burutuz goaz, baina arrazoi duzue, askoz ere gauza gehiago egin daitezke. Egia da. Eta oxala guztiak egin ahal izango bagenitu.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

## **8.- Hirugarren hiru hilekoko “ordainketarako batez besteko epealdia” txostenaren berri ematea.**

Alkatea: Hiruhileko honetan 28 ditugu.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

## **9.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.**

Alkateak, Idazkariaren laguntzarekin, 2017ko 172 eta 210 bitarteko dekretuen berri eman du.

Alkatea: Baduzue ezer esateko?

Arkaitz San Jose Martinez: dekretuei dagokienez, zein dira azken biak, 209 eta 210, beno galdera bat da besterik gabe, izan ere, joan den egunean bilkura izan genuen elkarteekin eta Erdi Aroko Azokako aurrekontua aipatu zen eta, noski, dekretuak begiratzuz ikusi dugunez, aurrekontua onartu zenean hasierako kreditua 6.900 eurokoa bazen ere, ondoren, Udalak partida beste 3.000 eurotan areagotu zuen, 9.000 eurora arte, gainera, gero, Kuadrillatik beste 3.000 euroko diru-laguntza bat jaso zen eta azkenean 12.900 euroz hitz egiten ari gara gutxi gorabehera, balioespenik ez dagoenez, beno ostalariekin eta abar egiten da, bada ez dakit, galdera labor bat, izan ere, ikusten ari gara azkenean 10.000 euro direla Udalak ipintzen dituenak aparte jasotzen denaz gain, bada kontuan hartu beharko da datorren urteko aurrekontua egiterakoan. Halaber, galdetu nahi genuen azkenean noiz aterako den ezagutzen ote den. Izan ere, hori Udalak ipintzen duena da, baina ondoren ez du Udalak zuzenean kudeatzen, ostalariek kudeatzen dute, beraz beno, horren inguruko balioespen labor bat.

Alkatea: Erdi Aroko Azokako bilkura izan genuenean, Udalari inplikazio handiagoa eskatu zioten, 25. urteurrena zelako. Eta aurrekontuko 7.000 euroekin ezer gutxi estaltzen zen, gutxirako



ematen zuen. Orduan hor iritsi zen konpromiso hori, aurten 3.000 eurora arte iritsi gaitzke esatekoa. Guregan hartzeko kontzeptua ez dira 3.000 euro gehiago, kostuak guregan hartzea, babes zibilaren kostua edota anbulantziaren kostua guregan hartzea da, izan beharrekoak diren gastu finkoak eta, horrela, 7.000 euro batez ere Erdi Aroko Azokari dagozkion jardueretara bideratzea. Eta ondoren hori areagotu egin zen, izan ere, legealdi honetatik aurrera, Foru Aldundiko jarduera turistikoak sustatzeko ateratzen den diru-laguntzaren barnean, era berean, erdi aroko azokek ere diru-laguntza edukitzea aurreikusten da. Lehen erdi aroko azokak espresuki kanpoan geratzen ziren, eta hori aldatu egin da. Beraz, beno, modu bat da, jardueren barnean, izan ere, diru-laguntza hori Kuadrillaren bidez eskatzen da, eta Erdi Aroko Azokarako ere kopuru bat aurreikusten da. Horrek apur bat hobea den Erdi Aroko Azoka bat egitea ahalbidetzen du.

Arkaitz San Jose Martinez: eta azkenean ateratzen den horretaz, badugu informaziorik?

Alkatea: bada, oraintxe ezin dizut esan. Funtsean horrela dago egoera.

Ascensión Hormazabal Meabe: diru-laguntza bat ez denez, guk ordaintzen dugun gastua denez, ez du deus ekartzen.

Berataratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

## **10.- Udal kudeaketaren kontrola.**

- Alkatea: gauza bat aipatu nahi nuen. Aurreko hileko Osoko Bilkuran Gizarte Zerbitzuetako laguntzailearen arretaren gaia aipatu zenuten. Ez duzue astirik eman. Edozein modutan, nik esan nuen Ceciliorekin eta Mari Joserekin hitz egingo nuela. Uste dut hori artxibozainak eta Mari Josek elkar topatu zuten egun baten izan zela. Neurriak hartu dira elkarrekin topa ez daitezen. Mari Jose azkeneko mahaian esertzen da beti. Musika-ekipo bat ipintzen da musika egon dadin eta, beraz, gutxiago entzun dadin. Haatik, eta datuak babesteko agentziari jakinarazi diozuela baliatuz, ea hori nahikoa den edo neurri gehigarriren bat hartu behar ote den. Udalean obra egingo dugu, Alkatetzaren alboan dagoen bulego txikia bereizi egingo da, izan ere, berehala Bake Epaitegiaren multzoa izango dugu, espazio bat behar du, eta bulego hori ere egokia izan daiteke arreta emateko. Zinegotzien aretoa ikusten izan dira, baina ez dute egokia ikusten arreta eskaintzeko. Orduan, beno, horixe da dagoena. Neurriak, ahal den heinean hartu dira, izan ere, Datuak Babesteko Agentzia dago eta espero dut asmo ona izatea, ikusi eta beren iritzia zein den guri azaltzea, eta bulegoren bat itxi behar ote dugun. Agian hori izan daiteke egunen batean Bake Epaitegiak eta Gizarte Zerbitzuetako laguntzaileak parteka dezaketena. Mari Jose hor egotearen arrazoia zera da, jardun osoan kontratatu zitzaionean, Ceciliok arretarekin lotutako zenbait izapide egiten ditu, Mari Josek administrazioarekin lotuta dauden izapideak egiten ditu, beraz bi pertsonak batera egon ez daitezen, bada horregatik esertzen da hor.

Alazne Lafragua Ureta: nik bi kontu. Bat, ez dagoela nahikoa denbora, premiazko samarra iruditzen zaidan zerbait konpontzeko 15 egun, eta pertsona batzuk hara joan eta beste batzuk esaten ari direna entzun behar izatea beren miseriak kontatzen ari direnean, uste dut 15 egun aski direla inondik ere. Musika ipintzearena eta abar geroko zerbait izan da, ez da izan Osoko Bilkuran ohartarazi zitzaizuenean.

Alkatea: ez, lehendik zegoen.

Alazne Lafragua Ureta: beno, berdin da, kontua da entzun egiten dela. Han egon behar ote duen ala ez alde batera utzita, ez dakit lehen zer esan duzun, laguntzailearen zeregina zein den azaldu diguzu, etab. edozein delarik ere laguntzailearen zeregina, edozein delarik ere langilea, argi dagoena da hura ez zela espazio egokia, eta ez dela espazio egokia. Orduan, gainera uste dudun moduan guztiok ados bagaude ez dela egokia esatean, orduan konpondu egin behar da. Ez da beste ezer egin behar.





Alkatea: esan dizut aukera baliatuko dugula, datuak babesteko Agentziara salatuta dagoenez...

Alazne Lafragua Ureta: bai, baina hori gero izan da, hori konpon zitekeen eta datuak babesteko agentziarena ekidin zitekeen. Ekidin zitekeen, baldin eta esan zen unean konponbidea ipini izan balitzai. Eta agian Areto hau ez da egokiena, ez dakit, baina hor, goran artxibozainarekin, dagoena baino egokiagoa izango da behintzat, etab.

Alkatea: esan dizut neurriak hartu zirela. Musika aurretiaz dago. Behin artxibozaina eta Mari Jose elkarrekin zeudela suertatu zen. Egutegiak begiztatu dira dagoeneko berriro elkarrekin topa ez daitezen.

Alazne Lafragua Ureta: gerora egin da.

Alkatea: artxibozaina eta Mari Joserena, jakin genuenean esan genuen "aizu, bada, horiek ezin dira elkarrekin egon". Egun batean suertatu ziren elkarrekin. Mari Jose astean behin etortzen da eta Blanca hilean bizpahiru aldiz.

Alazne Lafragua Ureta: baina berdin da zenbat egunetan etortzen diren, berdin da.

Alkatea: orduan esaten dizut, musika aurretiaz zegoen, baina neurri gehiago hartu behar badira hartuko ditugu. Eta bereizitako bulego batean izan behar bada, bada bereizitako bulego bat egingo da.

Alazne Lafragua Ureta: bada, horixe da egin behar dena. Ez dago gehiago nahastu beharrik. Gainerakoak ez dio axola.

Joseba Vivanco Retes: nik, "astirik ez duzue eman" horri buruz, "izan ere, ez diguzue denborarik eman, zuek zarete..." esanez bezala esan duzu gainera.

Alkatea: ez, datuak babesteko Agentziara joatearren esaten dut.

Joseba Vivanco Retes: irailaren 21ean Osoko Bilkura izan genuen eta gaia hemen planteatu genuen. Are gehiago, premiazko gai bat zela esan genuen, oso gai delikatua delako. Gai delikatua zen, ez txantxetarako kontua. Premiazkoa zen. Esango dizut zure erantzuna "hitz egingo dugu haiekin, Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin", bat, "haiekin hitz egingo dugu", bi, "edozein modutan, haiekin hitz egingo dugu", hiru, "uste dut onena haiekin hitz egitea eta irtenbide bat bilatzea dela, baldin eta beraiek egiaz arazo bat dagoela ikusten badute", lau, lau aldiz ere errepikatu zenuen. Ia San Pedro bezala, bestea ukatzean. Irailaren 21ean. Urriaren 5ean hemendik pasa ginen eta guztiak berdin jarraitzen zuen. Guk hartu eta esan genuen, beno, neurririk hartzen ez denez, gutun bat igorriko dugu datuak babesteko Agentziara eta, aizu, Udalarik helarazi diezaioa. Gutuna urriaren 18an iritsi zen, oker ez banago, udaletxera. Irailaren 21etik urriaren 18ra. Eta orduan ipiniko zineten martxan seguruenik. Gutuna iristen ez den bitartean, hemen ez da ezer martxan jartzen. Gutuna iritsi ez balitz eta ezer ez esaten jarraitu izan bagenu, Osoko Bilkura honetara iritsi, berriro galdetuko genuen gaiaren inguruan eta ziurrenik guztiak berdin jarraituko zuen. Martxan jartzen zarete arreta ematen dizuetenean, izan ere, guk arreta ematen dizuegun bitartean alde batetik sartu eta bestetik irteten zaizue. Kontua zen "ez duela nahi hemen jarri, musika dela, artxibozaina dela..", baina hitz egiten ari denarengandik bost metrora itxaroten jarraitzen duen jende hori zer? Udal funtzionarioa parean. Bada, datorren ostegunean egoera lehengoratu behar badute eta behin-behinekoz lehen zeuden moduan ipintzen badira berriro barruan, eta administrazioko laguntzailea Gizarte Laguntzailearekin barruan, eta hor egon behar badute beste hilabetez konponbidea ematen zaion arte, hor sartzen dira, baina ez, egoera berean jarraitzen dugu.

Alkatea: ez da horrela. Datuak babesteko Agentziaren gutunaren aurretik hartu ziren zenbait neurri.

Joseba Vivanco Retes: Musika?

Alkatea: eta artxibozainarekin batera ez gertatzea ziurtatzea.

Joseba Vivanco Retes: artxibozaina. Baina jendea hor dago zain ordea. Guztiok ikusi dugu jendea dagoela zain besaulkietan. Zer egiten du funtzionarioak? Laguntzaile dagoenean ez naiz igoko eta beheran geratuko naiz laguntzaileak noiz bukatuko zain eta ez naiz parean geratzen?

Alkatea: berriro diot. Aprobetxatu egingo dugu datuak babesteko Agentziak abisua duela.

Joseba Elejalde Ribacoba: Joseba, utzi apur batez. Bilduko bozeramaileak hitz egin du, ondoren zuk hitz egin duzu. Nik hau errepikakorra dela esango dut. Bozeramailea esan nahi dut, gizarte gaietan. Pentsatzen dut bozeramailea izango dela. Halako guztietan gizarte gaiez hitz



egiten duena da, horregatik esaten dizut gizarte zorroan bozeramailea izango dela. Hau oso errepikakorra da. Hau Udal honetan gertatu izan da, ez da lehen aldia. Eta ziurrenera azkena ere ez da izango. Hau oso larria da, zinez larria, eta Alkate batek esatea musika ipini duela, auzoko dantzaldian egongo bagina ere. Iñigo, ezin duzu hori esan Alkate modura Osoko Bilkuran, ezin duzu halakorik esan, musika ipini du, txalotzea baina ez da falta, goazen! Barregarria da Iñigo, erantzun hori, haur hezkuntzako lehen mailan ere ez. Ezetz Iñigo.

Alkatea: barkatu, publikoari arreta egiteko beste gune batzuetan badago, ezta?

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, baina ez irekita, jakina. Eta taberna batean ere badaukazu, publikoari irekita hondoko musika ere badaukazu, baina hau ez da kasu hori. Gai larri batez hitz egiten ari gara, azken batean hona zerbaiten eske etortzen diren pertsonengan eragina duen gai batez, eta baita gertu egonik nahi gabe norberarenak ez diren miseriak entzuten ari diren pertsonengan ere, norberak dituenarekin aski izango da eta. Nik uste dut gai hori bi egunetan konpondu behar zela, baldin eta, eta beti bezala berdina diot, Alkatetzatik gauzak konpontzeko gogorik egongo balitz. Eta esango dut zergatik, hemen ez baita gertatzen den lehen aldia, eta esango dizuet noiz gertatu zen azken aldiz antzeko zerbait. Bake Epaitegiarekin gertatu zen. Bake Epaitegiarekin, Bake Epaitegian lan egiten ari zen administraria kexu azaldu zen beste administrarien aurrean pertsona bat errekerimendu batera edo dena delakora Bake Epaitegira joaten zen aldiro udaletxe guztiak jakiten zuelako. Beno, bada azkenean obra egin zen, baina askoz ere beranduago egin zen obra hura. Ezin dizut esan 5 urte edo 8 urte beranduago, ez dut gogoan. Baina kexa asko izan ziren, zinez asko. Egin eta obra, eta bereizketa. Leku batean publikoa artatzeko bi administrari-laguntzaileak zeuden eta, beste batean, esan dezagun, beste administrari-laguntzailea, sarrerak eta irteerak ematen zituen eta Bake Epaitegiar arduratzen dena. Bulego hartan estore bat erori zen. Administrari-laguntzaileari erori zitzaion burura. Urtebete baino gehiago egon zen estore hori berriro ipini gabe. Inor ez zen gai izan estore hura bere lekuan ipintzeko. Administrari hark, bere kabuz, horrenbeste itxarroteaz nekatu eta, eta nora joan zen? Bada, gizarte zerbitzuetakoak ia orain gainerako guztiak jasotzen dituen lekura. Solairuaren erdira joan zen eta aulki bat hartuta mahai batean eseri zen. Eta kito. Eta ezin gara horren zain egon. Udaletxe honetako administrari bati, langile bati, dagoeneko nekatuta, aspertuta, hartu beharreko erabakiak hartzen ez direlako, estorea erortzen zaio, eguzkiak ematen dio astelehenetik ostiralera goizeko 08:15etatik arratsaldeko 15:00ak arte, eta joan egiten da, azkenean erabaki du beroa gehiago jasan ezin duenez, jasanezina baita, eta bere lana egin ezin duenez, bere ohiko laneko gunetik ateratzea.

Alkatea: Baina noizko kontua da hori?

Joseba Elejalde Ribacoba: ez, esaten ari naitzaizu hau ohikoa dela udaletxe honetan. Esaten ari naitzaizu orain gertatu dena ohikoa dela, eta Gizarte Laguntzailea, edo kasu honetan gizarte gaietako administraria, bere lekuan, herritarra modu normalean arta dezakeen gela batean, ipintzearen arduraduna, bada gauza bera gertatzen baitzen Bake Epaitegiarekin. Edonor ohartzen ginen zertaz hitz egiten zen Bake Epaitegian, eta gainera bereizi ondoren, estore bat erori zitzaion, eta urtebete igarotzen da estorea ipini gabe, eta administrariak edo langileak bere kabuz erabaki zuen bere laneko gunetik kanpo joatea. Eta hori egun askotan ikusi izan dugu hemen, eta inork ez zuen kexarik edo oztoporik ipini. Hura bere horretan utzi zen, bolak aurrera egiten, aurrera egiten, azkenik norbaitek berriro estorea ipini zuen arte. Eta kito, gaur arte. Lotsagarria da ordea arazo larri baten aurrean egotea hilabete, bi hilabete, hiru hilabete, eta zuk esatea musika ipini dela eta konponduta dagoela, musika apur batekin. Dagoeneko ez da entzuten, hondoko musika da. Hondoko musika oso altu ipintzen baduzu agian ez da entzungo.

Alkatea: ez, hondoko musika dago, eta itxaroteko lekutik urrun samar dago. Baina berriro diot, datuak babesteko Agentzia hor dagoenez ikusiko dugu. Eta bulego honetan ere obra egingo dugu eta bulego hori itxi egingo dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: bikain iruditzen zait Iñigo, baina gauza horiek...

Alkatea: eta hor Bake Epaitegia joango da, eta Gizarte Zerbitzuetako laguntzailea hara joan behar bada hara joango da.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik esan nahi dizut zera, agian hemen urte asko daramatzadalako, baina jakina, urte asko daramatzadanez hemen gertatu diren gauza asko dakizkit. Eta denborarekin errepikatu egiten diren arazoak dira. Eta hori da ulertzen ez dudana. Arazo bat ezin



da denborarekin errepikatu etengabe. Zerbait gaizki egiten ari gara. Eta zuk Alkate modura, egiteko, egin dadila agintzeko edo desegiteko eskumena duzularik, azken Osoko Bilkura izan genuenetik, gaur Bildu esaten ari zaizun guztiari ekiteko gogo pitin bat izan bazenu, bada ziurrenik ez zen Osoko Bilkura honetan aterako. Laguntzailea bere lanpostuan arituko zen lanean lasai asko, harekin egotera datorren auzotarrak ez luke inongo arazorik izango, eta guztiok gauzak Jainkoak agindu bezala egiten arituko ginen. Baina hau egonkortu, geldiarazi eta denboran luza dadila uzten badugu, bada ditugun arazoak dauzkagu.

Alkatea: Besterik?

Joseba Vivanco Retes: besterik gabe nik ez dudala nahi izan Joseba bezain modu ironikoan mintzatu, musikaren kontuarekin eta abar, baina gai larriak direla errepikatu nahi dut, Udal Gobernuak huts egiten du beti gai hauetan. Azkar kudeatu beharreko gaiak dira, halaxe da. Izan ere, gero norbait etortzen da marketeria, makrame edo ezkila-dantza ikastaro bat eskatuz eta Udala berehala mugitu eta ikastaro hori ateratzen du. Baina horren delikatuak diren gai hauetan oso motel goaz... beraz tira, bizkortu gaitezen. Esango duzu "ez, Agentziakoak etorriko dira eta esango dute" bikain, hau eta hura esan ahalko dute, baina egindakoa, gaizki egindakoa, hor dago.

- Arkaitz San Jose Martinez: nik gai bat daukat, labur. Aurreko asteartean bilkura izan genuelako Elkarteekin besterik gabe, diru-laguntzen gaia. Azalpen labur bat eman zen irizpideak zein ziren adieraziz, zergatik eratu behar ziren Plan Estrategiko bat eta ordenantza bat, eta zein ziren jarraitu beharreko urratsak, azaletik. Ez genuen han galdetu, izan ere, Elkarteei begirako espazio bat zen gehiago, baina niri gustatuko litzaidake jakitea zenbat denboraz ari garen hitz egiten ordenantza onartzeko, izan ere, noski, maiatzaren 16an bilkura bat izan genuen zuekin, diru-laguntzen gaia zertan zen gainbegiraturuz, izan ere, hori izan zen Bilduk urte honetako aurrekontuak ez babestearen arrazoietako bat, eta ordenantza eta Plan Estrategikoa uda iritsi aurretik onartuta izango zirela esan zitzaigun, kronologia horrekin lan egiten zuen Gobernu taldeak, eta Elkarteekin udan hitz egiteko asmoa zegoela, horrela, uda amaierarako, zerbait landuta izateko. Oraindik ez ditugu onartuta ordenantza eta plan estrategikoa, Batzordean eztabaidatu dugu eta berehala onartuko dela uste dut. Joan den egunean aurkeztu egin zitzairen, baina noski, jadanik ez gaude uda aurretik, dagoeneko uda ostean gaude oso, ia azaroan gaude. Pentsatzen ari bagara urtarrilaren 31n, etorkizun ideialean, Elkarteek beren proiektuak aurkezteko data modura, gainera beren gastuak justifikatu eta abar egiteko, bada estu samar gabiltza. Gure galdera zen ea zer den lantzen ari dena.

Alkatea: 2017ra ez gara iritsiko.

Arkaitz San Jose Martinez: bada zirriborroan 2017-2018 ipintzen zuen, urtebeterako izango dugu?

Alkatea: 2019, bi urterako.

Arkaitz San Jose Martinez: Eta erantzuna da?

Alkatea: ez gara 2017rako iristen.

Arkaitz San Jose Martinez: Eta Aste Santura iristen gara? Aurreikuspenik?

Alkatea: plan estrategikoa onartuko dugu, ordenantza, eta oinarriak onartu behar ditugu.

Ascension Hormazabal Meabe: edozein kasutan 2018rako izango da.

Arkaitz San Jose Martinez: azkenean presarik ez dagoenez agian uda aurretik egingo dugu, agian. Gero udaletxe honetan urtea urtarrietik irailera igarotzen da ezertaz jabetzen ez garelarik.

Alkatea: egia da denbora azkar doala.

- Unai Gotxi Kastrexana: beno ni hasiko naiz esaten Garai Plazako atzealdeko parke honetako zenbait erabiltzailek helarazi digutela Garai Plazan txakurrek lotuta egon behar dutela adierazten duen seinalea berriro ipintzeko premia dagoela. Parkean, zabuak dauden lekuan. Seinale horiek, oker ez banago, duela hilabete gutxi kendu ziren, ezta? Izan ere, uda aurretik, gogoratzen dudanez, hor ziren. Berriro ipiniko dira?

Alkatea: ezin dizut esan.

Maria Lorente Burgos: edozein modutan, ordenantzak ez al du agintzen udalerrri osoan loturik egon behar dutela?



Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina hor oroitarazi egiten zen haurren parkearen alboan dagoelako, haurren parke berriaren aldamenean, ez zabura falta zaionaren alboan. Seinale bat zegoen.

Alkatea: ados.

• Unai Gotxi Kastrexana: bada kezka bat herrian, galdera bat entzuten da zuntz optikoarekin zerikusia duena. Udalak badaki Artziniegan zuntz optikoa instalatzea aurreikusten ote den?

Alkatea: daukagun bakarra iritsi zitzaigun txostena da, txosten orokor bat, horrenbestez, haiekin harremanetan jarri ostean baietz esaten dute, ipini egingo dutela, baina Telefonicatik oraindik ez dira epeak zehazten.

Unai Gotxi Kastrexana: eta Udala ipini al da harremanetan Telefonicarekin?

Alkatea: bai.

Unai Gotxi Kastrexana: eta zer erantzun dute?

Alkatea: bada, esan dizudana. Ez digute eperik ematen, Telefonikak ez digu eperik ematen. Baietz esten digute, horrek programazio barnean gaudela inplikatzeko duela, baina oraindik ezin dute datarik zehaztu. Nik nahikoa azkar egingo dela pentsatzen dut.

Unai Gotxi Kastrexana: pentsatzen duzu, inolako zesarik gabe...

Alkatea: pentsatzen dut. Baina Telefonikak, idatziz jarri arte, ezingo dugu esan... Telefonikaren jakinarazpena iristen denean hasten direla esanez, baina Telefonikak erabakitzen ez duen arte...

• Unai Gotxi Kastrexana: eta azkenik maiatzaren 11n sartu genuen idatzi bat daukat, gogoraraziz jadanik 2015eko abuztuaren 19an, duela bi urte, jadanik kexak izan zirela, hirigune historikoko zenbait espaloi hondatuta zeudela esan zitzaigun. Apurtuta zeuden eta espaloi horietan erorikoak ere izan ziren. 2015ean irtenbide bat eman zedila eskatu genuen, batez ere, Ibarren etxetzarraren atzean dauden espaloietan, bertan erori baitzen pertsona hura. Maiatzaren 11n esan genuen erorikoak izan zirela berriro, eta konponbidea emateko eskatu genuen berriro, eta Agirre Lehendakari elizaren atzealdeko espaloiak ere barneratu genituen, horiek ere pikatuta baitaude. Badago zerbaiteko aurreikuspenik?

Alkatea: nik badakit egoera txarrean daudela eta obra txiki bat da. Begira, horixe da esan duzuenetako bat, badira egiteko dauden gauzak, bada halaxe da, badira egin beharrekoak diren zenbait gauza egiteko.

Unai Gotxi Kastrexana: Bai, baina egingo da?

Alkatea: bada, gauzatzeko dugun ahalmenaren arabera egiten joango gara.

Unai Gotxi Kastrexana: diot, ez baita kontu berria. Guk 2015ean planteatu genuen. Zergatik ez da orain arte egin?

Alkatea: badira aspaldiko gauzak, horiek eta beste zenbait.

Unai Gotxi Kastrexana: aspaldikoak, bi urte, eta erorikoak izan dira behin baino gehiagotan.

Alkatea: bi urte edo gehiago.

Unai Gotxi Kastrexana: bai, baina guk idatzi bidez gogorarazten ibili behar dugu eta hemen Osoko Bilkuran gauzak ez direla egiten, eta jendea kexatzen ari dela.

Alkatea: berriro esaten dizut. Obra txiki horietan egiteko daudenetako bat da hori, eta hori bezalaxe asko daude, eta ahal den heinean, ahalmenaren arabera, egiten joango dira.

Unai Gotxi Kastrexana: ahalmenaren arabera, hots, etorkizun zehaztugabe batean. Hau da, egingo direla baina ez direla egingo baina...

Alkatea: ezin dizut esan hilabeteen eginda egongo denik.

Unai Gotxi Kastrexana: ez, baina aurreikuspen bat. Borondate bat.

Alkatea: arrazoi duzu, egoera txarrean daude. Borondate bat. Ezin dizut esan.

Unai Gotxi Kastrexana: kontua ez da egoera txarrean daudela, baizik eta 2015etik daudela egoera txarrean. Bi urte daramatzagula.

Alkatea: bai, baina beste hainbaten artean bat gehiago dela diotsut. Jendeak erorikoak izan ditu, egia da, baina beste zenbait eta beste hainbat ditugu.

Unai Gotxi Kastrexana: onartu egiten duzu bederen, hainbaten artean bat.



Alkatea: oxala ahalmena izango bagenu bat-batean hona ekartzeko...

Unai Gotxi Kastrexana: barkatu, ahalmena, Josebak oraintxe gogorarazi du 600.000 euro daudela, eta lauza horiek konpontzea ez dut uste oso garestia izango denik. borondate kontua da eta 600.000 euroko soberakinarekin gaude aspaldidanik.

Alkatea: bai, baina esaten dizut obra gehiago daudela. Baina tira, arrazoi duzula.

Unai Gotxi Kastrexana: espaloi horietara gaineratuko ditut Arteko jaitsierakoak, horiek ere Museoaren zonaldean eta antzinako okindegiaren sarreran pikatuta baitaude eta altxatuta baitaude eta errepide berriko jaitsierakoak ere bai, izan ere, azken tartean, amonaren despentsatik gasolindegira arte guztiak irekita daude. Horrela, eskaera honi gaineratu horiek biak, ea kontuan hartzen den eta 600.000 euro horiekin bederen lehenbailehen konpontzen diren.

Alkatea: hori eta gauza gehiago.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik espaloiaren gaiari dagokionez, ez dakit zehazki zenbat izan daitezkeen kaltetuta dauden tartearak, ez dakit 3 metro lineal diren, 2, 5, edo 7 edo 17, baina egia da norbaitek estu hartzen gaituenean, gizarteak, konponbidea azkarrago ipintzen saiatzen garela. Udal honetatik guztiok, beno guztiok ez, izan ere, azken batean, batzorde ugarian hitz egin zen baina beno azkenean inor ez ginen ohartu udaletxe zaharreko beheramendua ez zela espaloiaren egin, eta norbaitek agerian utzi gintuen udalerrian barna zenbait paper banatuta. Eta horri bai, berehala ipini zaio konponbidea. Lauza horiek berriro jarri dira 24-48 ordu baino gutxiagoan, edo 72 baino gutxiagoan, berdin da. Badira zenbait gauza, hemen gaudenok pentsatzen dugu premiazkoak direla, agerian utzi gaituztelako, eta 48 ordutan edo 72 ordutan egiten dira beranduenez, herrikoa bada herrikoa da eta Burgosetik ekarri behar bada Burgosetik ekartzen da, eta Salamancatik bada Salamancatik. Eta harria ipintzen da eta herritarrari ematen zaio Legez eta eskubidez duen hori. Noraezean gabiltzanean eta pertsona batek, zinegotzi batek, esaten dizunean duela bi urtetik idatzi bat dagoela espaloiaren inguruko arazoei buruzkoa, agian gogoratuko zinen, agian ez, baina agian ez zen gehien aztoratzen zintuen arazoa. Orduan uzten joan zara. Eta horiek dira egunez egun egin beharreko gauzak, gauza txiki horiek, ur-ihes bat konpontzeko harri-zoruan zulo bat egin baduzu zulo hori hor egon ez dadin, Erretan gertatu zen moduan, 6 hilabetez, 6 hilabetez. Negu osoa igaro zen, elurteak, euriteak, ziklogenesia, negu osoa igaro zen. Eskerrak Erretako guztiok bagenekielan non zegoen zuloa. Bestela, baten bat bertan hilko zen. Gainera, udalerriko kaleetako batean sarrerak eta irteerak eragotzi zituen 6 hilabetez. Hona ekarri nuen, Bildu gai hau ekartzen ari den moduan, 6 hilabete edo 7 beranduago Udal zerbitzuak konpontzera joan ziren arte. Bada, agian ez da Udal zerbitzua ekarri behar, leporaino daudelako eta enpresa bat bidali beharko da bost metro koadro galtzada-harri ipintzera, edo zazpi metro koadro espaloi ipintzera. Ez dut uste horren konplikatu denik, borondatea behar da.

Joseba Vivanco Retes: nik ñabardura bat soilik "agerian utzi gaituzte" horri dagokionez.

Joseba Elejalde Ribacoba: beno, ea, nik Udal honetako Zinegotzi modura, eta horretaz ez ohartzea, Joseba bada begira, nire erantzukizuna badaukat.

Unai Gotxi Kastrexana: guk batzordetan eta Osoko Bilkuretan aipatu dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, bai, Osoko Bilkura honetan aipatu zen, baina ni esaten ari naitzaizu, zera, ez nintzela ohartu egin ez zutenik. Osoko Bilkuran asko izan ziren aipatu genituen akatsak eta inork ez zuen aipatu beheramendua egin ez zenik, nahiz eta... uste dut ezetz.

Alkatea: beno, edozein kasutan, hori egiteke zegoen, egia da egiteke zegoela eta egin da, egiteke dauden beste zenbait gauzen antzera, eta egiten joago direnak.

- Alazne Lafragua Ureta: bai, Iturrialdeko zonaldeko matxardadurari buruzkoa da, egin zen hura. Irrist egiten da berriro. Hori duela bi hilabete egin zen gutxi gorabehera, berriro leundu da edo dena delakoa...

Alkatea: matxardadura egiten hasi ziren berriro, baina emaitza ez zen fidagarria izan.

Alazne Lafragua Ureta: ez, ez, irrist egiten du eta. Eta malda, hori baitzen hasiera batean irristadak eragiten zituena, konpondu beharreko kontu nagusia zena, ez da ukitu, horrenbestez, ikusirik Iturrialdekoak ez duela funtzionatzen, pentsatu ote den alternatiba motaren bat, izan ere, malda horretan irristatu egiten da eta asko. Eta badator negua, badator euriteak, eta norbait erortzen ez den arte...



Alkatea: aukera matxardadura zen baina matxardadura ez da fidagarria izan. Beraz, beste formula bat bilatuko da.

Alazne Lafragua Ureta: Azkar samar bilatuko da, ezta? Izan ere, berehala euria egingo du, eta ni hara gehien igotzen naizenetako bat naizelarik, behin baino gehiagotan irristatu nahiz dagoeneko, eta pentsatzen dut, ni bezala jende erdia ere berdin ibiliko dela, horrenbestez, inor erortzen ez den bitartean, Zer egingo dugu? Deus ez?

Alkatea: teknikariek formula magikoa bilatzen badute.

Alazne Lafragua Ureta: baten bat egongo da, ezta?

Alkatea: bada, espero dut baten bat izatea. Espero dut.

Unai Gotxi Kastrexana: zorua marratu, lerroak egin, ez dakit. Halaber, aurreko Osoko Bilkuran Berazako maldako zonaldea gaineratu nuen, Berazako maldako kurba, hura ere irristakor dago eta. Espero dut hura kontuan hartzea neurriak hartuko badira. Eta Alaznek esaten duen moduan berehala.

- Joseba Vivanco Retes: gauza pare bat, bat espaloien kontuarekin eta abar, berriro esan, uste dut azken Osoko Bilkuran ere esan genuela, ez dakit Osoko Bilkuran izan zen edo non, Erretako paperontzia dagoeneko kokatu ote duten...

Alkatea: ez, oraindik ez.

Joseba Vivanco Retes: zabuak dagoeneko esleituta daude, eta uhinbiko osoa, baina bai, esan nuen, ez dakit beste leku batzuetan kendu egiten duten, ez dakit, baina hirigunean paperontziak kendu eta ez dira bere lekuan berriro ipintzen. Mirafloreseko kantoiko paperontzia falta da, han zegoena eta aspaldidanik falta dena, eta Liburutegiaren parean zegoena ere falta ez dakit noiztik. Han paperontzi bat zegoen eta joan egiten dira baina ez dira berriro etortzen. Azken batean han paperontzirik gabe geratzen ari gara. Beste gauza bat, estetika hutsagatik edo dena delakoagatik, hiribilduaren ateko pibote horiek dagoeneko janda daudenak kolpeen ondorioz, uraren ondorioz, guztiaren ondorioz, bada hartu daukagun soberakin handi horrekin, eta alda ditzagun. Aldatu, guztiak ez badira, baten bat. Nik ez dakit zenbat behar diren baina, tira, hiribildurako sarbiderako atea hor izan eta pibote oker batzuk egotea, janda daudenak, osorik, egia esan ez da dotore geratzen. Horrez gain, nik ez dakit zerbait berria gertatu ote den Artekalearen konponketarekin lotuta Aldunditik. Albiste berririk izan ote den. Azken Osoko Bilkuran aipatu zenuen teknikari bat etorri behar zela begiratzera...

Alkatea: azken berria da esleitu zutela. Hain justu ni Raulekin nengoela Arabako Lanaketik deitu zuten esanez enpresa batek egingo zuela eta Rauli eman zioten kontaktua, obraz arduratuko zen pertsonarena.

Joseba Vivanco Retes: eta gero Josebak azken Osoko Bilkurara ekarri zuen gaiarekin, irteguneei buruzkoa, azken Osoko Bilkuratik Diputatuarekin, Josurekin, hitz egin ote den jakitea, Bizkaiko Aldundiarekin elkartuko ote den edo gaia nola dagoen ezagutze aldera.

Alkatea: azkenean egin duguna, beno, aipatu genuen, Bizkaiko Foru Aldundiari erantzun diogu zehazkiago hartzeko neurrien inguruan. Uste dut Bizkaiko Batzar Nagusietan jorratu zutela asteartean. Alderdi Popularraren proposamena, semaforoak ipintzearena, eta egia da Josuk esaten duela horren emaitza ikusi behar dugula bilkura izateko. Ikusi Bizkaiko Batzar Nagusietan zer aipatu den, eta ondoren bilkura izatea. Nik espero dut berehala izatea.

Joseba Vivanco Retes: izan ere, azken batean, nik azken Osoko Bilkuran esan nuen, Udal modura apur bat dena Arabako Foru Aldundiaren eskuetan utzi dugu, gure interesen alde egin dezan utzi dugu. Beraz, noski, epeak luzatu egiten direla, uda osoan, azarora iristen gara, eztabaida Batzar Nagusietara iristen da, eta ez da inora iristen, ezerezean geratu baitzen, gainera gero badirudi Bizkaia aldetik adarra jotzen ari zaizkigula, izan ere, gutun hori iristen da esanez "ez, izan ere, ez duzue esan txostena zer iruditzen zaizuen", tira, ez halakorik esan. Eta noski gero Batzar Nagusietako eztabaida iristen da eta EAJ eta PSOE alderdiek egindako proposamena, Bizkaiko Aldundian gobernatzen ari direnak, irtenbidea guztion artean bila dezagula esanez. Bila dezagula baina dirua jarrita. Hau da, ez da Bizkaia edo Gordexolak ipintzea, ez, ipin dezala Arabak, haiek ipin dezatela, ez, ez, hemen badirudi guztion artean ordaintzea interesatzen zaiela. Aizu ez, hemen irtenbide bat bilatzeko gaude, eta gainera espaloiak eta txu-txu trenea guztion artean ordaintzen has gaitzela esan nahi diguzu. Ez.



Horrenbestez, noski, nik uste dut Arabako Foru Aldundia ere mugitu egin behar dela eta gaia heldu behar duela, bestela hau luzatzen hasiko da, eta ez dugu inon amaituko.

Alkatea: niri Bizkaiko Foru Aldundiak igorri zidan gutuna ez zitzaidan batere gustatu, eta gainera guri bakarrik igorri digute. Arabako Foru Aldundiari ez dio igorri.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina azkenean Bizkaiko Foru Aldundiak esaten duena, bere jokoa da, baina...

Alkatea: ez dio planteamendu bat eskatu.

Joseba Vivanco Retes: guk hemen Arabako Foru Aldundiari heldu behar diogu lepotik hari utzi baitiogu kudeatzen. Haiek dira orain negoziatu behar dutenak ea zertara iristen diren eta gaia ez dezala gehiegi atzeratu.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik galdera bat lñigo, Hitz egin al duzu Josurekin azken 15 egunotan?

Alkatea: bai.

Joseba Elejalde Ribacoba: Esan al dizu Alderdi Popularrak egindako galdera batzuen inguruan duela bi aste berak emandako erantzuna?

Alkatea: Batzarretako agerraldi bat?

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, Alderdi Popularraren hiru galdera. Badakizu zer esan zuen, ezta? berak ez zuela inolako erantzukizunik eta ez zekiela beste ezer. Alderdi Popularraren galderari ez zien jaramonik egin. Ni duela hilabete sarritan etorri naiz hona idatzi ezberdinekin, banekien Bizkaiko Batzarretan jorratuko zela, banekien batzarreko talde bakoitzak zer aurkeztuko zuen Bizkaiko Batzarretan, duela hilabete eskatu nizun batzorde bat egin zenezala hiru taldeekin eta Josurekin gaia zertan zen ikusteko, denboran gehiago ez luzatze aldera. Ez dakit deitu ote duzun, Josurekin hitz egin ote duzun, Josuk ezingo ote duen, ahalko duen edo dena delakoa. Baina berdinetan gaude. Gaur hona itzuli naiz beste gauza bat ekartzera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegitura, garraio eta Hirigintzako Batzordeko Saiotako zerrenda, 2009ko maiatzaren 20koa. Eta ez da berria. Egun hartan garraioaren gaia, Bizkaibusi dagokion gaia, jorratu zen batzorde honetan, enpresaren aldetik eta langileen aldetik kexak izan zirela. Eta jakina, irakurtzen jartzen banaiz, nire ustez garrantzitsuena dena irakurriko dut. Agerraldia egiten lehena Isasi Ortiz Baron da, Alderdi Popularreko batzarkidea, zera dio: "jakingo duzuen moduan, Gordexolako Udalak hainbat irtengune ipini ditu, Artziniega eta Gordexola batzen dituen errepidean. Honek arazo bat sorrarazten du herri lanetako sailean, konponbidea ematear dagoena". Esan dudan moduan, 2009. urteaz ari gara hitz egiten. "Gure taldera iritsi zaizkigun datuak dira, baina hainbat arazo sortu dituena garraio publikoarekin, Bizkaibusekin, are zerbitzua ez betetzeko mehatxuak barne. Herri Lanetako Diputatuari eskatu diogu zer-nolako politikak garatzea pentsatzen duen irtenguneen gaiarekin, eta nola pentsatzen duen kompetenziak zedarritzea errepidea Udalarari helarazten zaionean, eta Udalak ez dezala bere kabuz jokatu, baizik eta segurtasunak, noski, muga bat duela. Ikustea ardura horiek zer-nola zedarritzen diren, eta gauza bera gertatzen zaigu Garraio Sailean. Hau da, gai honi nola helduko zaion jakin nahi dugu, betiere, Herri Lanetako Saila garaiz iristen ez bada. Zerbitzu horiek emango ote diren, ez kasu honetan, baizik eta gainerako kasuetan, emateari utziko zaion, Aldundiak garraio horiek nola egin nolabait zedarrituta ote duen, edo zer-nolako irtenbideak hartzea pentsatzen den eta Aldundiak zer-nolako erabakiak hartzea pentsatzen duen Herri Lanetako Sailak berehala eta modu eraginkorrean egin dezan, izan ere, sail ezberdinak dira". Bada batzarkide beraren beste agerraldi bat, baina ildo beretik doa. Colmenero Ares jauna dago, eta berak esaten duena nahikoa garrantzitsua da: "irtenguneen gaiari buruz asko hitz egin da batzorde honetan eta Herri Lanetakoan. Oroitzen dudanez, guztion artean saiatu ginen irtenguneak zer-nolakoak izan behar ziren eta non ipini beharko liritekeen arautzen nolabait, hasiera batean esperientzia zenbait izan ziren, non gehiegizko neurriko zenbait irtengune egiten ziren, eta arazo bat egon zen garraio publikoarekin, izan ere, autobus zenbait hondatu egiten ziren irtenguneen erruz kalteak izaten zituztelako. Esan zenuen irtengune mota hori bateratu egin behar zela nolabait, guztiak berdinak izan zitezene, eta Udal bakoitzak, bere titulartasuneko hiri errepidearen gaineko eskumena izanik, neurri gehigarri ezberdinak jartzeko aukera izan ez zezan, azken batean, hain justu, aipatu duguna eragiten baitute. Gomazko bizkar izendatzen direnak ditugu, erabiltzaile eta ibilgailuetan kalte asko eragin dituztenak. Esan nahi dudana da, nolabait, Aldunditik, Udaletan egiteko



eskumen fisikorik izan ez arren, betebeharra duela, eta hau garrantzitsua da, betebeharra duela nolabait zehazteko trafikoa baretzeko txertatuko diren neurri horiek zein diren eta zer-nolakoak diren". Horrenbestez, hori adierazi nahi nuen nik, hau da, Aldundiko Sailak lan hori burutu behar duela, modu batera edo bestera gure errepidetan halako arazoak sor ditzaketen trafikoa baretzeko sistema mota ezberdinak ez ditzagun izan. Guztiok dakizuen moduan, 2010ean Arabako Foru Aldundiak irtenguneei buruzko araudi bat atera zuen, Udal ezberdinei lagatzen joan den errepide guztietan betetzen ez dena. Ondoren Aguirre jaunak egiten du agerraldia. Honek dio bi gairekin geratuko zela, bat Gordexolako udalak dagoeneko aurreikusita duela espaloiak eraikitzekeo proiektu bat burutzea, noski espalo horiek egin dituzte, eta bidean trafikoa baretu dute, eta lanak egiten doazen heinean abiadura moteltzeko irtenguneak kentzen joateko asmoa dauka. Hori ez da sekula bete, baina beno, hori hemen dator jasota. Bestalde, nabarmendu behar da era berean Saileko enpresako batzordearen idatzian esaten dela, halaxe dela, halako irtenguneei minak eragiten dituztela gidariengan eta horregatik abiadura mugatzeko modurik egokiena Leioako Udalean ezarritakoa izan daitekeela diote gomendio modura. Honekin guztiarekin esan nahi dudana da 2009tik gaurdaino 8 urte igaro direla. Bizkaiko Foru Aldundiak mando-bizkar edo irtenguneei buruzko araudi bat taxutu du. Errepide hori Bizkaiko Foru Aldundiak Gordexolako udalari laga zion. Lagatze horretan hainbat mekanismo daude aurreikusita hemen irakurri dudan guztia ekiditeko. Batzorde bat eratu behar zen urtean behin edo bitan elkartuko zena, egon zitezkeen arazoak aztertzeko. Nik ez dakit batzorde hori sekula elkartuko ote zen. Baina, egia esatera, Bizkaiko Foru Aldundiak Artziniegako Udalari galdegitea une hauetan gure iritzia zein den, uste dut adarra jotzen ari zizkigula. Barregarria iruditzen zait. Duela bi aste egindako galdera batzuen aurrean Josu Diputatuak esatea berak ez duela deus esateko eta ez dela bere eskumenekoa, Udal honetatik Artziniegako interesak defendatzeko eskumena eman diogunean, Arabako interesak defendatzeko eta errepide horretatik igarotzen diren herritar guztien interesak defendatzeko, bada zer pentsatua ematen dit. Nik uste dut, eta beti esango dut, ez dagoela borondate politikorik.

Alkatea: beno, Joseba, goaz atzera, izan ere, ez da 2009koa, lagatzea 2005ekoa da, hots, duela 12 urtekoa.

Joseba Elejalde Ribacoba: ni esaten ari natzaizu hau 2009ko zerrenda bat dela.

Alkatea: bai, baina errepidea 2005ean laga zen. Duela 12 urte.

Joseba Elejalde Ribacoba: esaten ari natzaizu Bizkaiko batzarkideek duela 7 edo 8 urte esaten zutena. Eta nahikoa kargamendu ari natzaizu ematen Bizkaiko batzarkideei adierazteko duela 8 urtekoa balekoa zena, orain balekoa ez ote zaien? Orain zer nahi dute, gure iritzia? Artziniegak ez duelarik, jakina, nik uste dut ez daukadala, eta bestela esadazue oker nagoela, errepide horrekin ez dudala inolako eskumenik, eta Aldundiak Arabatik kanpo ere ez. Beste kontu bat da Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia akordio batera iristea. Baina akordio horrek esanahi badu bakoitzak % 25 ipini behar dugula, egia esan, oker gabilta.

Alkatea: nik uste dut argi dagoela guk ez dugula inolako eskumenik eta inolako erantzukizunik errepide horren gainen, eta errepide horretan egin beharreko obren gainean ere ez. Eta Diputatuaren agerraldiari dagokionez, bada tira, uste dut ikusi egin beharko litzatekeela bakoitzak bere iritzia eman dezan, baina orain arte Arabako Foru Aldundiaren lankidetzatza izan dugu. Eta nik uste dut, puntu horretan uste dut...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik uste dut lankidetzatza hori aktiboagoa izatea lortu behar dugula, izan ere, duela zenbat hilabete onartu genuen Osoko Bilkura honetan Josuk eskatu ziguna?

Alkatea: utzidazu amaitzen. Nik uste dut lankidetzatza horrek jarraitu egingo duela.

- Joseba Elejalde Ribacoba: nik 2014ko maiatzaren bostean, hiru urtera doa, idatzi bat sartu nuen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Gaztela Leonen arteko lurralde-mugei buruz. Badira zenbait muga, esate baterako, Erreta Tuterako la Calleja, el Torco eta el Collado, eta ez dakigu zergatik duela hiru urte Gaztela eta Leonek lurralde-lerroak aldatu egin zituen eta orain badira, hainbat zonalde, badira partzela zenbait lehen Euskadirenak zirenak eta orain Gaztela eta Leongoak direnak. Horrenbestez, horrek hainbat arazo sortzen dizkie abeltzain batzuei lurren, azalaren, deklarazioa egiterakoan. Bada are handiagoa den arazo bat, hots, badira zenbait lur ez direnak ez Euskadirenak eta ezta Gaztela Leongoak ere, inorenak ez diren lur modura





konsideratuta daudenak. Badira x hektarea bada hori, ez dakit orkatzentzat eta basurdeentzako barruti bat den, hortik zehar lasterka ibil daitezen, edo zertarako, baina duela hiru urte hemen esan nuen, arazoa ez zela soilik herritar batzuen edo udalerrri honetako herritar jakin batzuen, baizik eta Udalarena berarena, izan ere, uste dut Udalari 30 hektarea baino gehiago dagozkiola. 2017an gaude, dagoeneko 3 urtetik gora igaro dira, nik herenegun Angelekin hitz egin nuen, ez zela bere arazoa esan zidan, bada ez bada Aldundiaren arazo bat ez dakit norena izango den arazoa, baina zerbait erabaki beharko da hau ebazteko. Ezin duguna da Udalari dagokion lurraren zati bat muga bat Gaztela eta Leonen duela eduki, ezin ditugu partzela batzuk eduki Gaztela eta Leonen edo inorena ez den lurrian, horrek abeltzaintzat dakartzan arazoekin, izan ere, lehen esan dudana bezala badira partzela-zati batzuk, ez partzelak, baizik eta partzela-zatiak Autonomia Erkidego bakar batekoak ere ez direnak, eta horren ondorioz arazo asko eta asko ari dira sortzen, eta Udalak bere ondarea defendatu beharko luke. Eta nik ez dakit nola, nik duela hiru urte ekarri nuen hona eta berriro dakart. Esan dudana moduan, aurreko batean Angelekin hitz egin nuen, eta Angelek esan zidan berak ez zuela ezer egiterik. Bada Angelek ez badezake ezer egin, esan diezadala norbaitek nork alda dezakeen hau. Barrutiarekin kexak izan baitira, abeltzainen aldetik kexak izan dira eta Alderdi Popularrak 2014ko maiatzaren bostean egindako kexa jasota dago.

Alkatea: jo Joseba, bada, ez dakit, egia esan.

Joseba Elejalde Ribacoba: baina zu 2014an jadanik hemen zinen ordea Zinegotzi modura, eta nik 2014an Angelekin bilkura bat eskatu nuen, eta 2017an gaude eta bilkura hori ez da sekula egin, batzorde hori sekula ez da burutu. Bada hemen jarraitzen dugu.

Alkatea: ezin dizut esan nola dagoen.

Joseba Elejalde Ribacoba: badakit gaurko egunez ezingo didazula esan, baina irtenbidea nahi ditut Iñigo, nik gaur luzatzen dizut. Gaurko egunez, urriaren 26an, galdera luzatzen dizut. Gero emango didazu zuk irtenbidea.

Alkatea: itxaron apur bat ea Ascen zerbaitekin oroitzen den.

Ascensión Hormazabal Meabe: nik uste dut espediente hori kartografiara bidali zela, eta bere garaian Agurtzane eta Gotxi mugarririk ikusten aritu ziren, depositu ezagunaren gaia baita.

Joseba Elejalde Ribacoba: Burgoseko depositu bat zer eta orain Araban dago, eta Arabako lurrak, Euskal Autonomia Erkidegokoak, nahi duzun moduan deitu, bat-batean Burgosen daude, eta bat-batean dagoeneko ez da hori kontua, baizik eta inori ez dagozkiola.

Alkatea: beno, ikusiko dugu. Etorri egun batean eta espedientea berreskuratuko dugu, ea zer dagoen.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik espedientea osorik daukat. Gertatzen dena da nik Angelekin hitz egiten badut, katastrokoa bera baita, ustez hori mugarrizten duena... bere garaian mugarririk guztiak perfektu zeuden, zedarritu egin zen, Gaztela eta Leonekin akordio bat erdietsi zen...

Alkatea: nik pentsatzen dut ordea Autonomia Erkidegoko mugekin zerikusia duen gai batean katastrofik ezer gutxi egin daitekeela.

Joseba Elejalde Ribacoba: guztia. Zuk mugarrizten duzunean pareko auzotarrekin zoaz, Lantenokoekin edo Burgosekoekin.

Alkatea: baina prozeduraren bat ezarri beharko da.

Joseba Elejalde Ribacoba: prozedura egina dago. Arazoa da 17 edo 15 urte horietan zehar mugarririk, uste dut mugaketa 91n egin zela, mugarririk horiek errespetatu egin direla 2013 edo 2014. urtera arte. Urte bedekatu hartan markatutako mugak errespetatu egin dira. Eta arazoa da orain bat-batean batek bere muga hartu eta hemendik markatu duela eta besteak hemendik markatu duela, eta bat-batean paradoxa bat ematen da, hots, Gaztela eta Leoneko ur deposituak arabarren jabetzakoak izango liratekeela. Inolako logikarik gabeko gauzak dira.

Alkatea: Joseba, etorri egun batean eta espedientea begiratuko dugu eta gaurkotu egingo gara.

Joseba Elejalde Ribacoba: Aldundiaren gaia ebatzita dagoenez, utzi egingo dugu.

Ascension Hormazabal Meabe: Hori da barrutirako erosi eta itxitura egin zuen kontratista harena?



Joseba Elejalde Ribacoba: baina itxitura leku beretik dago. Itxitura alde berean egin zuen, ez da itxitura kontu bat. Itxitura lehen igarotzen zen leku berean dago, gertatzen dena da orain hormigoiztatu egin duela...

Ascensión Hormazabal Meabe: buruz ari natzaizu hitz egiten baina nik uste dut ehiza barrutikoak hona etorri zirela.

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, baina hori izan zen oholtxo guztiak kendu zizkielako. Pacok itxitura egin zuenean oholtxo guztiak kendu zizkien, orduan hona etorri ziren kexuka. Pacok esaten zien ehizatu nahi bazuten sar zitezkeela... ez baina oholtxoak hemendik datoz hau Arabarekin muga delako. Arazoa da barrutikoak kexatu egin direla Pacok, muga aldatu zuenean, oholtxoak kendu zituelako. Eta esaten dute, ez, ez, guk muga hektarea bat harago dugu. Muga ez da hemen, hektarea bat harago da, bada ez, hektarea hori Burgosek baitaratu du.

Alkatea: etorri egunen batean eta begiratuko dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: beraz, Burgosek baitaratu egin duenez eta Pacok hor beste ehiza barruti bat duenez, Pacok hartu eta bere oholtxoak ipini ditu, Burgoseko barruti gisa. Hortik datoz ehiztarien kexak.

- Joseba Elejalde Ribacoba: gero ea galdetu ote duzun Aldundian ispilua jar daitekeen, eta zein baldintzatan jar daitekeen ispilua.

Alkatea: bai, haiek ipiniko dute.

Joseba Elejalde Ribacoba: Haiek ipiniko dute? Ah, ados. Esan dizute noiz?

Alkatea: ez.

Unai Gotxi Kastrexana: ispiluaren gaiarekin gaudenez, Udalak ipini zuen hura ipiniko al dute?

Alkate: hori da Aldundira igorri dugun txostenean aipatu ditugun gauzetako bat, jarri dugun ispilua.

- Joseba Elejalde Ribacoba: paperontzien gaiarekin eta abar, aurreikusita duzu noiz jakitea? Auzo ezberdinetan paperontziak eta bankuren bat ipiniko al dituzu?

Alkatea: ez, Erretako paperontziaren eskaera dugu, hura jarri egingo dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: hori bai, baina Erretaz gain badira auzo gehiago eta pentsatzen dut Erretako nukleoak dituen beharrizan berdinak izango dituztela.

Alkatea: oraintxe bertan ez dugu aurreikusita.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta uste dut azken batean auzo ezberdinetan hiruzpalau paperontzi ipintzea ez dela gehiegizko kostua, ezta Udalaren aldetik denbora zentzuzko eta normal batean gauzatu ezin den obra handi bat ere.

Alkatea: oraintxe bertan dugun eskaria Erretako paperontziarena da.

- Joseba Elejalde Ribacoba: ondoren, beste galdera bat, Peñalvako pistari buruz. Ez dakit zer pentsatu eta ezta zer esan ere. Dirudienez pista hori ez da existitzen, ez da inorena nonbait, Administrazioarena eh? Agian azken batean, nondik igarotzen den ikusita, jabedunaren jabetzakoa izango da, eta apur bat goraxeago igarotzen den lekua Udalaren jabetzakoa da haren lurretatik igarotzen baita. Udalak ez jakitea norena den pista horren titulartasuna, eta Aldundiak ere ez jakitea, bada, gauzatu zenean eta egin zenean, uste dut gauzak ez zirela oso argi izango edo ez ziren ongi egin. Jende andanak erabiltzen duen pista bat da, ehiztariek, ibiltariek, kirolariek, telebista eta telefonoko antenak konpontzera doazenek, bi enpresek, eta beno, duela urte askoz geroztik ari naiz esan eta esan konpon dadila, eta titulartasuna norena den ezagutzen ez denez, bada ez da konpontzen. Eta eskatuko nizuke horri dagokionez Iñigo, azpimarra dezazula hori Aldundian, eta ikus dezazuela norena den bide publiko horren titulartasuna, edo ea Administrazioaren batena ote den, bestela zin egiten dizut azkenean itxi egingo dudala. Giltzarrapo bat ipiniko diot Joseba Elejalde Ribacoba izana dudana bezala.

Alkatea: tarte bat da, ez da pistarik ageri, ez da titulartasun publiko modura ageri, eta Aldundiari esan diogunean espedienteak bilatu behar ditugula ea zerbait topatzen dugun, han ere ez da deus ageri.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada hitz egin jabedunarekin bestela zin egiten dizut, azkenean giltzarrapoa ipiniko diodala. Inorena ez bada eta nik konpondu behar badut, giltzarrapo bat ipiniko

*Ayuntamiento de Artziniega*  
*(Álava)*



*Artziniegako Udala*  
*(Araba)*

diot. Ez Aldundiak eta ez Udalak, 82. eta 83. urtean egina dagoen pista bat. Eta harengatik ezin da inolako diru-laguntzarik eskatu ez delako inongo erregistrotan inskribaturik agertzen, ez Udalean ez Aldundian, horrenbestez, azkenean beti berdin gabiltza.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hogeiak eta berrogeita hamar minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.